

Herririk Herri |2|

Hiru behargin "kaleratu" izana salatzenko protestak Berrizko Manufacturas Zeta-n



Berbaz |10|

A. Azurki: "90 urte baino gehiagogaz, bizipozez beteta daude gudariak"

Kirola |17|

Igor Azpuri elorriarrak Biharko Izarrak pilota txapelketako finala jokatuko du

Belaunaldien arteko martxa egingo dute ekainaren 12an

Elorrio • Durangaldeko nagusien, helduen, gazteen eta umeen arteko hartu-emanak sustatzeko, auzoetan zeharreko martxa antolatu dute hilaren 12an. Nagusiak elkartearen ekimena da eta Erde-llak antolatu du ibilbidea. **6**

Gaztetxeak hamar urte egin dituela ospatuko dute

Otxandio • Egun osoko jaia antolatu dute zapaturako. Umeentzako puzgarriak, bertso-rap saioa... izango dira egunez. 22:00etatik aurrera, Edan eta Zea Mays taldeek, besteak beste, zuzenean joko dute. **3**

Trikitixa Eguna antolatu dute bihar Iurreta eta Durangon

KULTURA • Goizean Iurretatik kalejiran irten eta Landako Gunean batuko dira bazkaritara. Ondoren, Gozategi anaiek kontzertua eskainiko dute. Aurretik, eguerdian, Jose Jabier Abasolo "Tiliño" omenduko dute. **11**



Ingurumena 2011 gehigarria

• Mallabia

Kultur Etxeari teitatu konponduko diote datozen hile bietan **8**

• Durango

Aurrekontu parte-hartzaileei buruzko eztabaida, bihar **5**

• Iurreta

AHTaren Orozketa tarteko kritikei erantzun die alkateak **4**

Nazioarteko Quad Opena egingo dute asteburuan Abadiñon

➤ Traña-Matienan egokitutako zelaian nazioarteko gidaririk onenak lehiatuko dira

➤ Erakustaldiez gainera, DJ-en musika eta umeentzako puzgarriak izango dira **20**



Kepa Aginako

Mendea bete duen bandera lau haizetara

Iurreta • Herriko banderak ehun urte egin ditu aurren. Urteurren hori ospatzeko eta bandera "iurretarguztiena" dela aldarrikatzeko, hainbat ekitaldi prestatu dituzte datozen hiletarako. Esaterako,

ikus-entzunezko "dinamikoa" aurkeztu du 1911 Herri Batzordeak. Iurreta, Oromiño, Bakixa, Arriandi, Orozketa eta Goiuria bandera baten inguruan elkartu dituzte, 25 elkarriketatik gora jasota. **2**

PREST

m

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK
Goi Eskola Politeknikoa
Biteri Ikastetxe Nagusia
ARRASATE - EKAINAK 11
larunbata, 10:30

Gure MUndura etortzeko prest?

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK EKAINAREN 17ra ARTE

HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Mendeurrena bete duen bandera herriari zabalduz

1911 Herri Batzordea sortu dute urte osoan izango diren ospakizunetarako



Asteon aurkeztu ditu ekainerako antolatutako ekitaldiak 1911 Herri Batzordeak. Kepa Aginako

Herriko banderak mendea bete duela-eta, ospakizun urtea dute Iurretan. 1911 Herri Batzordeak nabarmendu duenez, Iurretako bandera eta agintariaren makila (*txusue*) elizatearen “nortasuna” dira, eta herria ordezkatzu eroan dute batera eta bestera: “iurretarguztiona da bandera, eta hala behar du ospakizunak ere; urte guztikoa”. Beraz, parte hartzera deitu dituzte herritarrak.

Besteak beste, komertzio eta kofradietan banderaren metakrilatozko oroigarriak banatu dira, eta kofradietako jaietan ere presente izan dute bandera; Iurretako futbol taldearen iguera ospatzean ere bai. Herritarrek etxean jartzeko banderaren erreplikak ere egin dituzte. Ekainari begira, berriaz, domekan, aizkolari eta harri-jaso-

Herri-kirolak izango dira domekan, 13:30ean. Ekainaren 11n pailazo eta jolasak

tzaileak egongo dira Bixente Kapnagan, eta 11n pailazoa eta jolasak Amilburun. Ekainaren 24,25 eta 26an, gazte egunak eratuko dituzte Gazte Asanbladagaz. Iraila dute hile gogorra. ■ A. Basauri.

Kofradia guztiak bandera beraren estalpean batuta

Ikuspuntu historikoa ahaztu barik, banderarenganako eta herriarenganako “sentimendua” jasotzeko, ikus-entzunezko “dinamikoa” aurkeztu du 1911 Herri Batzordeak. Mendeurrena aintzat hartuz, Iurretan, Oromiño, Bakixa, Arriandi, Orozketa eta Goiuria, bandera

baten inguruan elkartu dituzte, 25 elkarrizketatik gora jasoz.

Garaiko alkate Gontzal Sarrigoitiaren esana –125 urte ditu Gariako banderak– eta Igor Elortza bertsolariarena ere jaso dute. Ziortza Jaio, Oihane Isasik, Eneko Barroeta eta Asier Otadui sortutako lana da.

“Utzikeria” salaketak ukatu ditu alkateak

Orozketakoen kritikei erantzun die alkateak

AHTa egiteko lanen aurrean udalari “utzikeria” egozteari “bidegabekoa” eta “doakoa” deritzo Iñaki Totoriakaguena alkateak: “Ezjakintasunez edo fede txarrez dihardu udala aldendu egin dela esan duenak”, dio Orozketako auzokideen salaketei erantzunez.

Alkateak dioenez, Abiadura Handiko Trena (AHT) egiteko lanen eraginak “minimizatzen” saiatu da udala: 2007an eskutako ikerketaren ondorioz, “kamioientzat ibilbide alternatiboa egin zen, 1,5 km. murriztuz Orozketarako bidea. Etxun-Larri-

nagatxu erreka ur-isuri edo jasotze puntuak ere berraztertu ziren, aurreikusitako gainezkatzek saihesteko”. Seinaleztape-na eta bideen garbiketa “hobetzeko” neurrien artean, “konponketetarako, bide publikoak erabiltzeagatik tasa exijitu” zela ere badio, eta “lanek sorturiko kalteak konpontzeko neurri zuzentzaileak bateratzen” saiatu direla, “batez ere, gauetan, zaratagatik kexak izan dituzte-eta”.

“Eskumenetatik kanpora”

Alkateak dioenez, “interes orokorreko obra” izanik, udalaren “eskumenetatik kanpo” dago AHTa, eta “irregulartasunen” aurrean “protokoloa jarraituz” salaketa dago-kionari bideratzen dio udalak. Ez du ulertzen auzokoei udalera jo ez izana. ■ A.B.

Totoriakaguena: “Udala aldendu egin dela dioenak ezjakintasunez edo fede txarrez dihardu

Fede Sanchezen lana aitortu du institutuak

Guraso Elkarteko idazkari eta diruzain izan da

Guraso elkarteko idazkari eta diruzain izan den Fede Sánchezen lana aitortu gura dute aurten Iurretan Institutuaren sariagaz, zentroaren alde Guraso Elkartean sei urtean egindako lana eskertuz.

Institutuagaz lotura izan duten enpresari eta ikasle ohiek jaso izan dute saria, baina zortzigarren edizioan esparruak zabal-

tzea erabaki dute. Laredon (Kantabria) jaioa, Liendon bizi izan zen Sánchez, 15 urte gaz familia-gaz Abadiñora etorri arte. Compresores Samurren hasi zen lanean, ikasketekin uztartuz. Garraiolaria izan zen eta 1995ean Arrialeku koop. sortu zuen Mañarian; 98an Gallartako AST-rekin batu zen. Orain, Pavimentos Galean dihardu.

BERRIZ

‘Kirolari ateak zabalik’ jardunaldia domekan

Herritarrek hainbat kirol mota doan praktikatu ahal izango dituzte domeka honetan

Berrizko Udalak, Bizkaiko beste herri batzuekin batera, kirola sustatzeko eta udalerriko kirol azpiegiturak ezagutzera emateko ekimena antolatu du ekainaren 5erako.

Makina bat kirolekin doan ibiltzeko aukera edukiko dute herritarrek. Kiroldegian aerotabox, batuka, karate body pump eta spinning-a praktikatuko dituzte;

Urbirako mendi irteera eta 100 kilometroko bizikletamartxa ere antolatu dituzte

Olakuetako frontoian pala, zesta-punta, frontenis eta esku pilota; Berrizburu futbol zelaian futbol 7 eta penaltiak landuko dituzte, eta Urzabalen skate-a eta eskalada. Futbola 10:00etatik 12:00etara izango da, eta gainerakoak 11:00etatik 13:00etara.

Horretaz gainera, Urbirako mendi irteera ere eratu dute, goizeko 08:30ean hasita. Bestalde, txirindularitza gogoko dutenentzako 100 kilometroko bizikletamartxa aterako da 09:30ean udal-letxe aurretik. Partaide guztiek kamiseta bana jasoko dute. ■ M.O.

Hiru kaleratze salatzeako protestak egiten dihardute

Berrizko Manufacturas Zeta enpresan hiru behargin kalera-tu dituzte oraintsu, eta hori salatzeako kontzentrazioak egin dituzte, langileek eta LAB sindikatuak deituta. Enpresa aurrean, Zaldibarren eta Elorrioren, mobilizatu dira kaleratutakoak berriro hartzea eskatuz.

LAB sindikatuko ordezkariak azaldu digutenez, “behargin hauek 32, 31 eta 11 urte zeramatzaten enpresan lanean, eta goizetik gauera bota egin dituzte”. Mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi dute, zuzendaritzak euren eskaerak bete arte. ■ M.O.



Beharginak, Zaldibarren, protesta ekitaldian.

OTXANDIO

Gazte Asanblada pozik, "gazteengan eta herriarengan ilusioa" sortu duelako

Herriko gazteek, parte-hartzea bultzatuz, elkarlanean eratu dute Gaztetxearen biharko urteurren jaia

Hamarkada bete du Otxandioko Gaztetxeak, eta Gazte Asanbladako kideek goizetik gauerako egitaraua eratu dute biharko urteurren festarako. Oihane Sanchezek eta Mikel Goikoleak eman dizkigute azalpenak.

Su honek bidaben hauspu garelako, Eraixonk! lema hartu dute biharko. "Orain dela 10 urte sortutako mugimendua omendu eta biziberritzeko nahia islatu gura dugu horrela", diote. Ospakizun

"Ikasturte honetan herriko gazteekin batu gara banaka, euren iritzia jasotzeko"

"Gaztetxeak bere baitan duen esanahi ideologikoa transmititu gura dugu"

hau, baina, proiektu oso baten inflexio puntu moduan aurkeztu dute: "Ikasturte honetan herriko gazteekin batu gara banaka, egun honetarako zer gura zuten eta Gaztetxearen ibilbide zein beharrez zeukaten iritzia jasotzeko". Hartu-emanak hamabostero jarraitu ei du, batzar bidez, eta "denok batera biharko egitaraua zehazten joan gara", diote. Herri guztia erantzako jaia izatea gura dute urteurrenek: "kirol eta kul-

tur taldeak ere eskertu gura dugu, beti daudelako guri laguntzeko prest".

Pozik daude orain arte jasotako erantzunagaz: "Proiektu honekilusioa sortu du gazteengan, herriarengan eta baita Gazte Asanbladako kide ohiengan". Gaztetxea herriko gune "aktiboa" dela azpimarratu dute: "Datozenei begira, Gaztetxeak bere baitan duen esanahi ideologikoa transmitzea nahi dugu". ■ M.Onaandia



Oihane Sanchez eta Mikel Goikolea, Gazte Asanbladako kideak.

IZURTZA

Gobernu taldeak "parte-hartze prozesua bete" duela dio

Joan zen astean aldizkari honen alean jasotako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren behin behineko onarpena, "herriar guztiei zabalik egon den parte-hartze prozesu baten amaiera" izan dela nabarmendu du Ezker Abertzaleko gobernu taldeak. Ballarin jarduneko zinegotziak azpimarratu duenez, "prozesu luze baten azken emaitzaren" kontra bozkatzeko jeltzaleek plazaratutako argudioa—gaia udalbatzarrerara hauteskundeak baino egun bi lehenago eramatea ez dela zuzena—, ez da udal gobernuaren ustez ulargarria.

"Dokumentua osatuta jasotzean eroan dugu gaia plenora", dio udal gobernuak

Prozesuak markatutako epeen barruan, eta berridazketaz arduratu den taldeak dokumentua osatzen amaitu duenean eroan dute plana hasierako onarpenerako proposatzera, Ezker Abertzaleko funtzionari zinegotziak azpimarratzen duenez.

Iritziok maiatzaren burutu zuten udalbatzarrean ere mahai-gaineratu zituen Ezker Abertzaleak, jeltzaleen kritikei azalpen horiekin erantzunez. ■ I.E.

EGITARAUA

Goizean

11:00etan: Txupinazoa eta burrunbada.
11:30ean: Umeentzako jolasak eta puzgarriak

Eguerdian


14:00etan: Poteoa
15:00etan: Bazkari herrikoia Gaztetxean.

Arratsaldean

17:00etan: Bertso-rapa
18:00etan: Kalejira
19:00etan: Ekitaldia
19:30ean: Errifaren zozketa Gaztetxean eta bakarlaria plazan.

Gauetan

22:00etan: Kontzertua: Kilauea, Estricalla, Zea Mays eta Edan.



MGEp
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/gep

Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012

Izenematea Ekainaren 1etik 10arte

Matrikulazioa Uztailaren 4tik aurrera

MGEp	OÑATI Gestio Heziketa
- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. - Sareko Informatika Sistemen Administrazioa. - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. - Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa - Industri Ekipoaren Mantenimendua.	- Administrazioa eta Finantzak - Idazkaritza - Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a
Kontsulta pertsonalak:	
943 71 21 91 E-posta: arriaran@eps.mondragon.edu	943 71 80 09 E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu

Gremioen gida

PINTURAK

Pinturas Sagasta
pinturak

APANGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokaleak, tabernak, etxebizitzak, ...)

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 • IBAI URIEN

DEKORAZIOA

a-metz
[barne] diseinua

Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak
www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

AROTZERIA

EGUIA s.l.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tablora kalea, 54 • 48200 Durango • info@corpintereaegula.com

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA • TB • SOINUA • BIDEOK • IRRATIA
KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITE BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Telebés Instalazio Ofiziala

ITURGINTZA

berriozabaleta
Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinazioa
Jose Miguel Acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombrak

Goleta, 46 - 2. esk. - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoa salgai

PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

Solaguren kalea 3 • ABADIÑO
Tel.: 94 601 48 74
Faxa: 94 621 03 74
urtiaga@elortek.es

Urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

LORAZAINTZA

Jardines Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

AMPLITUDIN ERABAKI
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena

M.Z.O.ITURGINTZA-GASA-BEROGAILUA-ERAIKUNTZA,S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

DURANGO

Aurrekontu parte-hartzaileei buruzko eztabaida, bihar

Gaia taldeka landuko dute Andra Marian, Parte Hartuz masterreko kideekin



Aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzeko prozesuan norbanakoen iritzia jaso dute.

Elkarleen eta norbanakoen parte-hartzeari buruzko iritzia jaso ondoren, Parte Hartuz masterreko kideek biharko hitzordu berria ipini dute: 11:00etan Andra Mariko elizpean aurrekontu parte-hartzaileen gainean sakonduko dute eztabaida taldeetan banatuta.

Aurrekontu parte-hartzaileak sortzeko metodologia diseinatzeko pausuak dira orain artekoak. Durangoko Udalak Parte Hartuz masterreko kideei metodologia hori prestatzeko eskatu die.

Biharko eztabaida-saioaren ondoren, formakuntza tailerra eskainiko dute EHUko irakasleek hilaren 9an, 18:00etan, liburategian; aurrekontu parte-hartzaileak sortzeko metodologiaren diseinua landuko dute. Joseba Landa masterreko kideak azaldu duenez, "tailer horretatik txosten bat aterako da, eta hori alderdi politikoari aurkeztuko diegu".

Durangarren erantzuna

Joan den egunean norbanakoen iritzia jasotzeko hiru galdera luzatu

zizkieten masterreko kideek durangarrei: "Durangon parte hartzen da?"; "Zer dakizu aurrekontu parte-hartzaileei buruz?"; "Zelan diseinatuko zenuke horrelako aurrekontuak egiteko metodologia?". Landak adierazi duenez, orokorrean Durangon parte-hartzeko kanalak "nahiko eskasak" dira gerturatu zirenen iritziz. Aurrekontu parte-hartzaileak egitea "oso interesgarria" dela pentsatzen dute durangarrek, baina gero "hori praktikan gauzatzea gaitz ikusten dute". ■ A.U.

Eskualdeko 200 dantzari batuko dira, bihar, Dantzaroan

Bihar, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Durangaldeko hamar dantza taldek euren erakustaldiak egingo dituzte *Dantzaroa* ekimean. Hirugarren urtez antolatzen du Dantzaroa Gerediaga elkarteak, eta aurten 200 dantzari eta musikari batuko direla aurreratu dute Gerediagako kideek.

Udaletxe aurrean batu eta Goienkaletik Ezkurdira kalejira joango dira dantzariak. Han hasiko dute dantza erakustaldia. Izurtza, Mañaria, Traña-Matiena, Zelaieta, Garai, Iurreta, Berriz eta Durangoko taldeek parte hartuko dute. Antolatzaileen berbetan, ekimenaren helburua "batzuentzat oraindik ezezagunak diren dantzak" ezagutaraztea da. ■ A.U.

Emakume eta Gazte Ekintzaileen Eguna ospatu dute Maristetan



Eguaztenean Maristak ikastetxeak Emakume eta Gazte Ekintzaileen Eguna ospatu du. Eskualdeko hainbat pertsona gonbidatu dituzte jardunaldietan parte hartzeko: Monika Olea Novo (Arteka liburu-denda), Rosa M^a Trinidad Coronado (Stop Accidentes), "Feel the song" (ikasleen breakdance taldea) eta Karlos Ibarrondo (Showcooker), besteak beste. Enpresa txikiak sortzeko sentsibilizazioa sortu gura izan diete gazteei. Maristetako arduradunen esanetan, emakume eta gazteak "aberastasun ekonomikoaren eta sozialaren iturri dira". ■ A.U.

Sakabanaketa eta bere ondorioak ikusgai

'Km-0: Sakabanaketaren mila aurpegiak' ekimena aurkeztuko dute Plateruenean domekan

Senide eta lagunak bisitatzeko hainbat euskal herritarrek karteletara egiten dituzten joan-etorrien berri ematen du *Km-0: Sakabanaketaren mila aurpegiak* proiektuak. Hainbat adierazpen artistikotatik abiatuta, sakabanaketaren eta bere ondorioen gaineko lanak aurkeztuko dituzte domekan honetan Plateruena kafe antzokian; 19:00etan hasiko da ekitaldia.

Domekako aurkezpenean bideogintza, argazkilaritza, web orrialdeak, kale erakusketak, dantza, performancea eta senideen testigantzak izango dira ikusgai eta entzungai.

Antolatzaileen berbetan, "komunikazio eta gizarte proiektua da *Km-0*, eta proiektua handitzen duen edozein arte adierazpeni irekita dago". Nabarmendu dute helburu nagusia "desagertzea" eta "hurrengo belaunaldiarentzat dokumentu bat izatea" dela: "Euskal gizartearentzat eta nazioarteko gizartearentzat ezezaguna den egia ilun bat argitzeko sortu zen egitasmoa". ■ A.U.

Adierazpen artistiko ugari batzen ditu ekimenak, ekarpen berrietara zabalduz

ATXONDO

AHTrako zundaketentzat pistak egiten hasi dira

Maisu Etxe ondoan eta Ukitze-baso auzoan pistak egiten hasi da makina bat, AHTa eraikitzeko proiekturako zundaketak egiteko. Beharrok salatzeke AHT Gelditu! Elkarlanak elkarretaratzea deitu du gaurko; 19:30ean elkartuko dira udaletxe aurrean.

Maisu Etxe ondoan eta Urkitzebason hasi da makina pistak egiteko beharrean

AHT Gelditu! Elkarlanak elkarretaratzea deitu du gaurko, 19:30ean udaletxean

David Cobos Atxondoko alkateak azaldu du desjabetzak egin dituztela herriko lursail batzuetan, eta "nahiz eta lur denetan oraindik ezin diren sartu, batzuetan bai, eta asteon etorri dira lur horietara".

Cobosen iritziz, makinaren esku-hartzea "indar erakustaldia" da, "desjabetzak egin dituztela esateko modua". Obrak atzeratzeko lanean jarraitzeko asmoa agertu du alkateak: "Duela sei urte ere egin zituzten zundaketak, eta horrek ez zuen esan gura obrak aurrera zihoazenez". ■ A.U.

MAÑARIA

Ume bik eman dute ikasturte berrirako Haur Eskolan izena

Orain hiru urteko maiatzean zabaldu zutenetik, urtean hiru tan zabaltzen dute gurasoek euren seme-alabak apuntatzeko epea Haur Eskolen Partzuergoak kudeatzen duen herriko haur eskolan. Irailaren 6an abiatuko duten ikasturterako, ume bik eman dute Haur Eskolan izena.

Ikasturte honetan hamar ume batu dira Haur Eskolan, eta hezitzaileek azaldu digutenez, irailetik aurrerako ikasturtean ere beste horrenbestegaz jardutea aurreikusten dute. Hiru urte bete dituzten zenbait umek eskola utziko duten arren, 2011-2012 ikasturtean zehar beste hainbat tek izena ematea ere itxaroten dute bertako arduradunek.

Zerbitzua martxan ipini zutenetik urte egin du izen-emateen kopuruak gora; sei ume zeuden 2010ean, eta datorren urtean hamar itxaroten dituzte.

Irailaren 6an abiatuko duten ikasturtean hamar umegaz jardutea itxaroten dute

Ikasturtean zehar hiru bider eskaintzen diete gurasoei izena emateko aukera

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfn. 94 681 43 85

ELORRIO

Belaunaldien arteko martxa antolatu dute hilaren 12rako

Umeen, gazteen, helduen eta nagusien hartu-emanak sustatzea du helburu

Gazteek nagusioi gauza asko erakutsi ahal dizkigute, eta guk eurei ere bai, urteetako esperientzia daukagu-eta". Belaunaldi arteko hartu-emanak eta zahartze aktiboa sustatzeko martxa berezia egingo dute ekainaren 12an. Elorrioko auzoetatik hiru ibilbide antolatu dituzte nagusiak, helduak, gazteak eta umeak

elkartzeko; belaunaldien arteko martxa izango da.

Bizkaiko nagusien elkarteak batzen dituen Nagusiak elkartearen ekimena da belaunaldien arteko martxa, eta amankomunazgoa, Elorrioko La Esperanza elkarte eta Erdella mendizale taldea dabilta hilaren 12ko eguna antolatzen. Durangaldeko nagusien

elkarte guztietara zabaldu dute deia. Xabi Ipiña Nagusiak elkarte lehendakariak azaldu duenez, nagusien elkarteak herrira zabaltzeko bidea ere bada martxa: "Ekimenaren berri eman behar dugu inguruan; tabernetan, ikastetxetan eta herriko elkartetan".

Ipiñak eta martxaren antolatzailerak zahartze aktiboaren alde-

ko apustua egin dute: "Nagusiok ez gara gizartetik kanpora egon behar; bertako arazo guztiak entzun behar ditugu eta aktiboak izan behar dugu gure herriaren garapenean eta hobekuntzan".

Martxak arrakasta izatea eta datozen urteetan "ekintza finkoa" bihurtzea itxaroten du Amankomunazgoko lehendakari Marian Larraurik. Niko Moreno Elorrioko alkateak ekimen "txalogarria" dela esan du, eta Esperanza eta Erdella elkarteek "lan egiteko ilusioa" nabarmendu du.

Durangaldeko nagusi elkarte guztiei zabaldu diete deia, martxara animatu eta euren inguruan bere berri emateko

Erdellak hiru ibilbide antolatu ditu Elorrioko auzoetan zehar; 9.5, 6 eta 2 km-koak

Hiru ibilbide

Erdellak hiru ibilbide zehaztu ditu hilaren 12rako. Hirurak San Agustinen hasten dira eta Aldatzekuan amaitu. Luzeenak 9,5 km ditu, ibilbide ertainak 6, eta laburrenak 2 km pasatxo. "Baldintza fisikoak oztopo ez izateko moduko bideak dira", adierazi du Morenok. Informazioa www.nagusiak.org atarian dago eskuragai. ■ A.Ugalde.

Mantenu lanen gastua hazi egin da azken lapurretengatik

Azken hileotan herrian izan diren lapurretak direla-eta, mantentze-lanen gastua hazi egin da Elorrioko Udalean. Aste honetako gobernu batzordean 29.000 euroko gastua ordaintzea onartu dute, normalean baino gastu handiagoa. Niko Moreno alkateak azaldu du tartean farola aldake-

Azkeneko lapurretak hauteskunde egunean egin zituzten futbol zelaian eta eskolako jantokian

tak eta ohiko beharrak ere egin dituztela, baina gastua lapurretengatik hazi dela horrenbeste.

Hauteskunde egunean izan ziren azken lapurretak Elorrioko. Futbol zelaian transformatzailea ostu zuten, eta eskolako jantokiaren hesitik, berri, atearen zatia eraman dute. Niko Morenok bere harridura azaldu du: "Inork ez luke pentsatuko atea lapurtuko zutenik". Martxoan, gainera, elektrizitate kableak lapurtu zituzten San Jose kalean eta San Agustinen. ■ A.U.



Atzo egin zuten hilaren 12an gauzatuko duten ekimenaren aurkezpena.

Udalatxerako mendi martxa antolatu du AHT Gelditu!-k

Bihar, 10:00etan, irtengo dute Elorrioko plazatik; martxoan hasi ziren zulaketa lanak Iguria auzoan

Gu ere gelditzera goaz, Udalatx bizirik! lemapean mendi martxa antolatu du AHT Gelditu! elkarlanak bihar goizetarako. Elorrioko plazan, goizeko 10:00etan, ipini dute hitzordua Udalatxera igotzeko. Mendi martxa amaitzean, Igurian luntxa egingo dute.

Mendi martxan Udalatx inguruko lanak ikusi ahal dira. Udalatx azpiko tunela 2009an hasi

ziren hegoaldeko egiten, eta martxoan Iguria inguruan hasi dituzte lanak, Santa Luziatik tunela zulatuz. Auzokideek obren eraginak salatu izan dituzte. Horrez gainera, hile honetan ADIFek Elorrio-Atxondo ibilbideko lanak lehiaketa publikoan ipini ditu.

Manifestazioa Arrasaten

Hilaren 11rako manifestazio nazionala deitu du AHT Gelditu! elkarlanak. Arrasaten izango da, 18:00etatik aurrera, *Tren bat gelditzeko argudioak ditugu, AHT gelditzera goaz!* lemapean. ■ A.U.

Obren ondotik pasatuko dira mendi martxan, eta Igurian luntxa izango dute amaieran

ABADIÑO

Erdi Aroko Azoka bihar eta etzi Trañaetxosten

Nazioarteko Quad jaialdiaren egitarauaren barruan jaso dute asteburuko Erdi Aroko Azoka

Abadiñoko Nazioarteko Quad Open-aren egitarauaren barruan jasota dago ekainaren 4 eta 5eko Abadiñoko Erdi Aroko Azoka. Trañaetxoste kalean, eta zirkuituaren inguruan, bihar eta etzi, goizetik arratsaldera arte izango dira azokako berrogeitik gora postuak

Asteburuko egun bietan, 10:00etatik 18:00etara, egongo da azoka bisitagai

bisitarientzako zabalik. Azoka legez, Galizia plazan umeentzako prestatuko duten jolas parkea ere 10:00etan zabalduko dute. Umeentzako puzgarriak, ludoteka, eskulan eta globoflexia tailerak eta abar antolatu dituzte.

Nazioarteko Quad Open-aren inguruan antolatu dituzten ekintzek gauean ere izango dute jarraipena: dj-en saioak izango dira zapatu gauean; domeka eguerdian, bestalde, De Norte a Sur taldearen emanaldia izango da. ■ I.E.

GARAI

Nagusien elkarteak irteera antolatu du Olitera

Garaiko San Migel nagusien elkarteak Olitera joateko txangoa antolatu du astelehenerako, hilaren 6rako. Goizeko 08:30ean ipini dute hitzordua herriko plazan, elkarrekin joateko.

Ekintza horretan, Oliteko gaztelua ikusteko aprobetxatuko dute, baita Santa Maria eliza bisitatzeko ere. Hor ez da amaituko, baina, garaitarren egun-pasa. Izan ere, bisiten ondoren bazkaria izango dute Ganbarte jatetxean. 25 euro ipini beharko dituzte parte-hartzaileek. ■ M.O.

Hurrengo eraikuntza

IURRETA

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behe • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrioren ere aukera onak

A. Urrela podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriren egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podologo A. Urrela

188. Elkarlagia

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behe • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04



**AUKERAKO AUTOREN BAT INTERESATZEN
BAZAIZU, KONFIANTZAZKO BESTE TAILER
BATERA ERE ERAMAN ZENEZAKE ONDO
AZTERTZERA NAHI IZANEZ GERO.**

*Andoni
esana*

Andoni Baños,
Gaurako Aukerako
Itulgailuen Arduraduna



**RENAULT MÉGANE
SPORT TOURER
DYNAMIQUE**

1.5 dCi 105zp. 2010. Urtea.

15.800€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzi gastuak barne. 11/06/30-erarte edo izakinen amalerararte ballozko eskaintza.
Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.



GAURSA ARRIANDI 12, TEL. 94 620 33 00, IURRETA, GRAN VÍA 65, TEL. 94 441 74 50, BILBAO. www.gaursaautoak.com
BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20, TEL. 94 448 39 00, DEUSTO. www.bilboberri.com

Durangaldean labor

Andikoako Asentzio jaiak
asteburu honetan

Gaur iluntzean Donien Atxa jasota ekingo diote festari Berrizko Andikoan, eta bihar goizetik izango dira ekintzak. 11:00etan mezagaz hasi eta gero dantzariak eta belar-meta desafioagaz segituko dute. Ondoren sakristaua izan den Antonio Barajuen *Matxin* omenduko dute, eta Amuriza aita-alabek bertsotan egingo dute. Arratsalderako asto-probak eta bolo txapelketa sartu dituzte egitarauan.

140 lagun batu ditu euskara
sustatzeko spinning maratoiak

Durangaldeko I. Spinning Maratoi Txapelketak 140 lagun batu zituen, zapatuan, Ezkurdin. Abadiñoko Mikel Zarrabeitia txirrindulari ohiak eta beste bost monitorek gidatu zuten euskararen erabilera sustatzeko maratoiak. Erritmoa jarraitu ezinda zebiltzanen artean txartel hori eta gorriak banatu zituzten epaileek, eta azkeneko 44 pertsona geratu ziren. Antolatzaileen berbetan, ekitaldiak "arrakasta osoa izan du".

Ziurtagiria tomate
eta piperrentzat

Ziurtagiriaren ENAC erakundeak Kalitatea Fundazioari akreditazioa eman dio tomateengatik eta Gernikako piperrengatik. Orain arte Eusko Okelak eta Bizkaia, Araba eta Getariko txakolinek eduki dute ENAC erakundearen akreditazioa.

MALLABIA

Datorren astean hasita hile bian Kultur Etxeko teilatua konponduko du Urenpresak. Udalak 113.121 euroko diru-atala bideratu du zeregin horretarako.

Kultur Etxea zabaltzeko helburuz eraikina eraberritu zenean —orain 15 bat urte— teilatua zegoenean uztea erabaki zuten, oraindik egonkor zegoelako. Urtean poderioz, ordea, teilak bigundu eta itoginak sortu dira azkeneko solairuan. Teilatu osoa aldatuko dute: "Teilak eskuan birrindu egiten dira, horregatik, dena ordezkatu beharra dago", azaldu du Aitor Loiola alkateak.

KZgunea ezingo da erabili hile bian; liburutegiari, aldiz, ez diote eragiten lanek

Lanak ekainean hasi eta hile biren barruan amaituko dituzte. Urte sasoi hau aukeratu dute Kultur Etxean batzen diren elkarteei ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Beraz, hile bian ezingo da KZgunea erabili. Liburutegia, aldiz, erabilgarri egongo da. ■ J. Derteano

Kultur Etxeari teilatu berria
ipiniko diote datozen hile bietan

Datorren astean hasiko dira lanean eta abuzturako amaitzea itxaroten dute



Teilak bigun daudenez, ura iragazi egiten da eta itoginak sortzen dira.

Oraindik greban
jarraitzen dute
langileek Iberica
enpresan

A.P. Iberica enpresako langileek 12 egun daramatzate greba mugagabea. Greba hasi zenezetik zuzendaritzaren eta langileen arteko hartu-emanak etenda daude, eta asteen ere ez dira batzartu. Enpresan 26 langile daude, eta horietatik 23k erabaki dute grebagaz bat egitea.

ELAko odezkarri Iñaki Arrietaren esanetan, "oso argi dauka gu zuzendaritza dela lehenengo urratsa eman behar duena; guk zain jarraitzen dugu". Langileen eta komitearen eskakizunetako bat langile bat ez kaleratzea zen: "Astelehenetan deitu zioten azken-kitatzea sinatzeko. Guk langile hori ez kaleratzeko eskatzen genuen eta eskatzen dugu". 2009tik hitzarmen kolektibo beragaz jarraitzen dutela eta ordainketetan atzerapenak daudela ere salatu dute. ■ J.D.

Udalekuak eta ludoteka
antolatuko dituzte udan

Ekainaren 29tik uztailaren 21era izango dira; izena emateko epea ekainaren 17ra artekoa da

Mallabiko Udalak udako ludoteka eta udalekuak antolatuko ditu. Izen-emate orriak Udaletxean zein Kultur Etxean daude eskuragarri; apuntatzeko azkeneko eguna ekainaren 17a izango da.

Ekimen biak astelehenetik eguenera dira, eta 4-14 urte artekoek zuzenduta daude

Udalekuak zein ludoteka ekainaren 29tik uztailaren 21era antolatuko dituzte, eta 4-14 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta dago. Gutxienez, 40 gazte eman beharko dute izena ekimenaguzatzeko. Ordutegia honakoa da: astelehenetik eguenera, 10:00etatik 13:00etara. Ordaindu beharreko kuota 60 eurokoa da; 80 euro seme-alaba bi izanez gero.

Ekainaren 22an, 19:00etan, batzarra egingo dute begiraleekin Kultur Etxean, ekimenaren gaineko zehaztasunak emateko. ■ J.D.

ZALDIBAR

Nafarroara irteera antolatu
du Zaldua mendi taldeak

Hilaren 12an izango da, eta, mendira joateaz gainera, upeltegi bat ere bisitatuko dute

Zaldua mendi taldeak irteera berri bat prestatu du ekainaren 12rako. Mendi ibilbide bat osatzeko aukera emango dute irteera horretan, eta baita gastronomian sakontzeko ere. Nafarroako Ziritza eta Lakar herriak batuko ditu ekimenak, eta bertan parte hartu gura duenak hilaren 8a baino lehenago eman beharko du izena Elisa ileak ileapaindegian.

Goizeko 07:30ean elkartuko dira Zaldibarko udaletxe aurrean, eta autobusez joango dira Iruñeraino. Han, mendira joan gura ez

Ziritza herrian ibiltzen hasi eta Etxauri mendian egingo dute tontorra

duenak goiz pasa egiteko aukera edukiko du; mendizaleek autobusean jarraituko dute Ziritza herri-raino. Ibiltzen hasi eta Etxauri mendian (1.138 m) egingo dute tontorra; hamaiketako egiteko aprobetxatuko dute, antolatzaileek diotenez. Gailurretik jaitsi eta Lakar herrira hurreratuko dira. Lau ordu inguruko ibilaldiaren ondoren, herri horretan batuko dira Iruñean geratutakoekin.

Upeltegira

Upeltegi batean bazkalduko dute gero, eta arratsaldean ardoaz elan ekoizten den ere ikusiko dute.

Irteerarako, bazkideek 37 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 42. ■ M.O.



**Durangaldeko
Behargintza**

Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo



Bizkaiko Foru Aldundia
Berrikuntza eta Ekonomia
Sustapen Saila

EKINTZAILEENTZAKO OINARRIZKO
TREBAKUNTZA

Enpresa berri bat sortzeko asmoa dutenei zuzendua

HELBURUA: Durangaldean enpresa berriak sortu

EDUKIAK: Negoziazioa, forma juridikoa, eratzeko legeak izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, arriskuak eta ingurumenekoak, zerga-ordainketa

IRAUPENA: 2011ko ekainaren 21etik uztailaren 1a arte (30 ordu)

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 09:30etik 13:15era

TOKIA: Durangaldeko Behargintza

IZENA EMATEKO EPEA: 2011ko ekainaren 17a arte

"Bizkaiko Foru Aldundiko autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko diru-laguntza berria eskatzeko balio du"



**Durangaldeko
Behargintza**

Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21

Konfiantzaren balioa

piso 

zure neurrira egokitutako konfiantzazko irtenbideak

IURRETA Erref. 002-1306
•120.000€ (19,9 milioi)



2 logela, sukaldea eta komuna.
Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko prest.
AUKERA, ZURE ETXEBIZITZA BERRIA
IZAN DAITEKE!

DURANGO Erref. 002-997
•143.641€ (23,9 milioi)



Erdi berriztatua. Berogailua. 2 logela
bikoitz, sukalde handia, komuna eta
leiho berriak. Ataria berriztu berria.
AUKERA!

DURANGO Erref. 002-1237
•172.790€ (28,7 milioi)



Erdialdean kokatuta dagoen 4 urteko
apartamentua. Logela bikoitza,
komuna eta egongela-jangela.
BIKOTEENTZAKO APROPOSAT!

IURRETA Erref. 002-1227
•179.702€ (29,9 milioi)



Berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela,
sukaldea, egongela eta komuna.
ZATOZ IKUSTERA!

DURANGO Erref. 002-31
•180.303€ (30 milioi)



Estrelnatzeko. Igogailua. Logela
bikoitza, egongela, sukaldea eta
komuna.
AUKERA EZIN HOBEA!

DURANGO Erref. 002-1140
•199.000€ (33,1 milioi)



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta
dagoen etxebizitza. 2 logela.
Eguzkitsua. Orientazio ona.
BERRIA DIRUDII!

ASKATASUN ETORB. Erref. 002-1270
•210.354€ (35 milioi)



Berriztatutako etxebizitza. Igogailua.
2 logela bikoitz, egongela handia eta
sukaldea. AUKERA!
HILEKO ETXEBIZITZA!

BERRIZ Erref. 002-1233
•249.420€ (41,5 milioi)



3 urteko alintzinasuna duen etxebizi-
tza. 3 logela bikoitz eta 2 komun.
Trastelekua eta garajea. Etxe osoak
kanpora ematen du. AUKERA ONA!

DURANGO Erref. 002-1309
•246.414€ (41 milioi)



Kurutziaga zonaldean. Igogailua.
3 logela, egongela, sukaldea eta
komuna. guztiz berriztatua.
Ganbara.

DURANGO Erref. 002-1300
•249.000€ (41,4 milioi)



10 urte dituen etxebizitza altua.
Eguzkitsua. 2 logela bikoitz, egongela-
sukalde handia eta komuna.
Garajea eta ganbara.
NEURRIKO PREZIOA!

DURANGO Erref. 002-1328
•270.455€ (45 milioi)



3 logela, 2 komun, egongela eta
sukalde handiak. Igogailua. Ganbara
eta garaje itxia.

APATA Erref. 002-1226
•276.465€ (46 milioi)



5 urte dituen etxebizitza altua.
160 m2-ko terrazarekin. Eguzkitsua.
3 logela bikoitz, 2 komun eta
egongela handia. Garajea eta
trastelekua. SALTZEKO PREMIA!

SAN ROKE Erref. 002-1182
•291.490€ (48,5 milioi)



Egoitza-gunean kokatutako etxebi-
tza altua. 3 logela bikoitz, egongela
handia, sukaldea balkoia eta eskegi-
tokiarekin eta 2 komun. Igogailua.
Ganbara eta garajea.

DURANGO Erref. 002-1313
•288.489€ (48 milioi)



100 m2. Etxebizitza altua igogailua-
rekin. 4 logela, komuna, sukaldea,
egongela handia eta bainugela.
Ganbara eta garajea.

ASKATASUN ETORB. Erref. 002-1287
•285.600€ (47,5 milioi)



2 logela bikoitz, 2 komun, egongela
handia eta sukaldea. Etxe osoak
kanpora ematen du. Orientazio ona.
Igogailua. Garajea eta trastelekua.

DURANGO ERDIALDEAN
BERRIZTUTAKO JAUREGITXOA



Azkeneko solairuan 2 logela eta 2
komun, garajearekin.
294.500 euro (49 milioi).
Azkeneko solairuan 3 logela eta 2
komun, garajearekin.
324.500 euro (54 milioi)

FKO. IBARRA Erref. 002-1302
•311.324€ (51,8 milioi)



Berriztatua, igogailuarekin. 3 logela
bikoitz, 2 komun, egongela handia,
sukaldea eta jangela. Ganbara eta
garajea.

MARTXOAREN 8KO Erref. 002-1243
•353.214€ (58,7 milioi)



2 urteko aintzinasuna duen pisu
eguzkitsua. 3 logela bikoitz, 2 komun,
sukalde handia eta egongela zabala.
Garajea itxia. OSO PISU ONA!

ELORRIO Eralkuntza berria



2 logela trastelekuarekin 177.000 euro,
3 logela trastelekuarekin 227.500 euro,
4 logela trastelekuarekin 283.000 euro,
etxebizitzak terrazarekin 225.000 euro-
tik hasita. Garajeak aukeran.
ERAIKITZAILEAREN ZUZENEKO
PREZIOAK! ETORRI PISO ON-era!

ABADIÑO Eralkuntza berria



Behoko solairuak 2 logela eta
terrazarekin. Garajea eta trastelekua.
214.881 eurotik aurrera (BEZA barne).
3 logelako etxebizitzak garajea eta
trastelekuarekin.
352.231 eurotik hasita (bez barne).
ERAIKITZAILEAREN ZUZENEKO
PREZIOAK. AUKERA ONA!



Konfiantzaren balioa
piso 
.com
zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko
lehen inbiliaria sarea



BERBAZ>

"Gerra galdu zuten, baina ez dira garaituak; euren ideiegatik borrokan diraute"

Gudari eta milizianoen testigantzak batu ditu Azurkik liburu batean; tartean, Paco Barreña miliziano durangarrarenak



Aitor Azurki •

- Donostia, 1983
- Kazetaria eta publizista

"90 urte baino gehiagaz baikor eta bizipozez beteta daude gudariak"

zutenean, Frantziara joan zen, erbestera, eta berak eta bere senarrak aktiboki parte hartu zuten hango mugimendu anti-frankistan. 1960ko hamarkadan Francoren kontrako atentatu saiakera batean parte hartu zuen; Donostiko Aieteko palazioan bonbak ipini zituen.

Gudari eta milizianoen oroitzapenetan sarri agertzen dira arto soroak. Frontean jardun zuten pertsonak horrela irudikatu ditu Aitor Azurki kazetariak 'Maizales bajo la lluvia' liburuan. Hamaika gudariaren testigantzak jaso ditu Azurkik. Gerra egun haietan euria zen goitik behera; egun euritsuak eta bonbaz betetako hegazkinak izan ziren gudarien etsai.

Gerra zibileko garaira gerturatzeko gudari eta milizianoen testigantzak jaso dituzu. Zelan hasi zinen gai hori lantzen?

1999an, ikasten nengoela, gerra zibila lantzean konturatu nintzen gure etxean ez zidatela garai hari buruz ezer kontatu. Eragina izan zuen gerrak gure etxean; aitona gudaria zen, eta osaba bat hainbat haurrekin batera Belgikan egona zen erbesteratuta. Nire buruari galderak egiten hasi nintzen; zergatik kontatu ziguten horren gutxi gerrari buruz? Aitita-amamei galdezka hasi nintzen, baina hil egin ziren, eta pentsatu nuen hori ezin zela gertatu beste familietan; ezin zirela aitita-amamen istorioak desa-

"Etxean gerrari buruz galdezka hasi nintzen, baina berandu; ezin dira aitita-amamen istorioak desagertu ilobek ezer jakin barik"

gertu ilobek ezer jakin barik. Horrela hasi nintzen 2005ean elkarriketekin gudari horiek, desagertu aurretik, ilezkor bilakatu guran.

Paco Barreña miliziano durangarra elkarriketatu zenuen. Zelan hasi zinen pertsona zen?

Zur eta lur geratu nintzen zeukan umore eta bizipozagaz. Gogoan dut hasieran bere begi berde disdiratsuek harritu nindutela. Bere bizipenak kontatzen zebilela, momentu batean batailoiaz egon zen lekuetara joatea proposatu nion; baietz, berak. Legutition eta Santa Engrazia mendian egon ginen, 70 urte ari nago han gertatutakoak gogoratzeko. Niretzat opari bat izan zen horrelako pertsona bat ezagutzeko, horrelako bizipenekin eta bizitzeko zeukan gogoarekin.

Zelan kontatzen zuen berak bizitakoa? Zelan bizi izan zuen gerra? Normalean, historia umore uki-

tu batez kontatzen zuen. Gauza oso krudelak ere, ez dakit zergatik, umore ukituarekin kontatzen zituen. Batzuetan serio jartzen zen; batez ere, bere anaia Esteban Nikolasi buruz berba egiten zuenean, orduan igartzen zitzaion tristura. Bere anaia desagertu egin zen, eta Pacok azkeneko biderrez noiz ikusi zuen kontatu zidan; oraindik ez da bere gorpurik agertu.

Gerran ibiltzeak zelan eragin du gudarien izateko eran?

Gehienek nahiko barneratuta daukate gertatu zitzaizena. Eurak kontziente dira mendekua ez

"Duela 70 urteko bataila lekuetara joan nintzen Paco Barreñagaz"

datorrela ezertara; eskatzen dutena jendeak entzutea eta euren egia kontatzea da. Gogo horregaz ikusten ditut. Oso borrokalari jarraitzen dute.

Paco Barreñak elkarriketatu batean zera esaten du: "Ejertzito bat genuen aurrean. Eurek bazekiten zer zen gerra; guk ez".

Gerrak kaos batean harrapatu zituen, militarki prestatutako buruzagirik barik, armarik barik... Liburuan bizi izan zuten prozesua ikusten da; zelan joan ziren gerrarako prestatzen, armak lortzen eta batailoiak sortzen. Kontatzen dute lehenengo trintxeretara zelan joan ziren, euren lehenengo tiroa non bota zuten, zelan burkide batzuk atzean geratu ziren hilik...

Elkarriketatu batek, Julia Hermosilla Salcedok, Otxandiko bonbardaketa bizi izan zuen....

Bera anarkista zen, bere senarra legez. Gerra hasteagaz batera, Julia Otxandiora joan zen; beste gazte anarkista batzuekin. Uztailaren 22ko bonbardaketan Juliari bi tinpanoak lehertu zitzaizkion. Denbora asko eman zuen ospitalean, eta hobeto entzuteko audifonoa eraman behar izan zuen bizitza osoan. Bizkaia hartu

Liburua egiteko prozesuan elkarrekin miliziano ibilitako bi pertsona elkartu ziren; Paco Barreña eta Jose Moreno.

Kasualitatea izan zen. Lehenengo Barreña elkarriketatu nuen, eta argazkiak erakutsi zizkidan; kartzelako bat euren artean. Geroago, Jose Morenagaz berba egiten nenbilela, argazki berdina erakutsi zidan. Esan nion ezagutu nuela pertsona bat argazki berbera zuena. Elkar ikusteko egun bat ipini genuen. 70 urte ziren ez zutela elkar ikusten, eta oso momentu hunkigarria izan zen. Elkar ikusi bezain laster bata besteari ohiuka hasi ziren: "Gudari, gudari!"

Elkarriketetan entzundakoetatik eta ikasitakoetatik zer nabarmenduko zenuke?

Bizitzarekiko euren jarrera oso humanoa da; baikorra, borrokalaria, irekia... 90 urte baino gehiagoko jendeak horrelako jarrera edukitzea itzela iruditzen zait. Askok daukate gazteoi irakasteko. Beti galdetzen didate ea hauek garaitutakoak diren. Niretzat ez dira garaitutakoak; gerra galdu zuten, baina ez dituzte garaitu. Zutik daude oraindik. Irabazi egin zieten, baina euren ideiegatik borrokan jarraitzen dute. ■ A.Ugalde

KULTURA[>]

MUSIKA> JAIALDIA

Euskal Herriko Trikitixa Eguna, bihar, Iurretan eta Durangon

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatu duen egun guztiko egitarauak beteko du ekainaren 4an Iurretan eta Durangon ospatuko duten Euskal Herriko Trikitixa Eguna: Jose Jabier Abasolo "Tiliño" omenduko dute



Euskal Herriko trikitilarien eta trikitizaleen topagunea izateko antolatu dute ekainaren 4ko eguna. Maiztasun zehatzik barik antolatzen dute eguna; egin zuten azkena goiko argazkiko 2006ko Markinakoa da.

Trikitixa Elkartearen Esteban Larrañaga eta kideek ordura arte

mende laurdenez egindako lanaren erreleboa 1994an hartu zutenarik batek, Adolfo Jainagak, azaldu digu Trikitixa Egunaren jatorria. 1994ko irailaren 25ean, Durango-Urkiolan antolatu zuen Trikitixa Elkartearen talde kudeatzaile berriak lehenengo Euskal Herriko Trikitixa Eguna.

1994an, Durangon eta Urkiolan ospatu zuten Trikitixa Eguna

1994tik, Trintxerpen, Zamudio, Gasteizen edo Getxon ospatu dituzte Trikitixa Egunak. 1990eko hamarkadan, "soinu txikiak sekulako gorakada izan zuen", Jainagak kontatu digunez: "Orduantxe sortu ziren eskola gehienak, eta Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu".

EGITARAUA

11:00etan

Iurretan bildu, eta kalejira Iurretan eta Durangon

12:30ean

Tiliñori omenaldia Iurretako plazan (Iurretako dantzariak, Zabaleta eta Mutriku, eta bertsolarien emanaldiak, besteak beste)

14:30ean

Bazkaria Landakon

17:30ean

Gozategi taldearekin erromeria

19:30ean

Jaiaren amaiera

Laurogeita hamarreko hamar-kada horretan sortutako ikaslegoa eta zalegoa izaten da, batez ere, Trikitixa Egunaren protagonista. Euskal Herriko alde guztietako trikitilariak batzen dira: Markinako 2006ko hitzorduan esaterako, mila trikitizale batu ziren bazkaritara; horietariko gehienak Euskal Herriko hainbat eskualdetik etorritako trikitilari gazteak.

Omenaldia Tiliñori

Adolfo Jainagaren ahotik jaso dugunez, "Francoren diktaduraren garairik ilunenean, euskal kulturaren adierazpena zen guztia zapalduta zegoen garaian, euskal kulturaren berpizkundean lan asko egin zuten": gerra etorri zenean soinua armairuan gordeta geratu zen etxe askotan, sekulako errepresioa egon zelako. "Tiliñoren lana izan zen baserriz baserrijoatea, eta hori guztia kalera ateratzea, eta jende horrek soinua zelan jotzen zuen erakustea". Biharko Trikitixa Egunean esker-tuko diote hori dena Tiliñori. ■ I.E.

Diktadura gainditzeko saiaturik zenari hauspoa emanez

1974an antolatu zuten lehenengoz Iurretako Trikitixa Eguna; 99an azkena. Hogeita bost urtez, urtero urtero antolatu zuten eguna. Aldameneko argazkia 1979an hartutakoa da: dozena bat trikitilariak jaso zuten Iurretan omenaldia. "Tiliñok Iurretako Trikitixa Eguna antolatzen egindako lan guztia eskertuko" du Euskal Herriko Trikitilari Elkarteak bihar. Egun horren antolakuntza Iurretako Jai Batzordearen elkarlana-gaz egiten zuela nabarmendu gura du, baina, Tiliñok berak.

Aurreko belaunaldietako trikitilariak zelan jo eta kantatzen zuten jaso eta erakutsi zuen Tiliñok, Trikitilari Elkartearen kontatu digutenez. Gaur egun trikiti irakasten duten 40-50 urtekoek Tiliñoren dibulgazio lanari esker

jaso zuten, Adolfo Jainagak nabarmendu digunez, aurrekoen irakaspenera, eta eurek transmititzen diete orain gaztetxoek.

Gaztetxoa zela Kepa Junkera Bizkaiko trikitilari zaharren artean agertzen duen argazki bat da 1974tik Iurretako Trikitixa Egunaren irudietako bat. Baina trikitilarien, dultzaineroen eta pandero-joleen izenak, argazkiak eta hainbat eta hainbat pasadizo eta kontu gordetzen ditu bihar omenaldia jasoko duen Jose Jabier Abasolo "Tiliño"-k gogoan: Bizkaian dauden dultzaina metaliko zaharrenak Durangoko Ermodokalean egindakoak zirela, esaterako. Tailerra Donostian zeukaten Larrinaga soinu-gileak ere Axpeko jatorrikoak zirela edo Bizkaiko trikitixa grabaziorik

zaharrena, 1926koa, Oromiñoko Arantzeta neba-arrebei egindakoa dela, besteak beste.

Baserririk baserri, trikitilari bakoitzak musika-tresna jotzen norekin ikasi zuen edo soinua zenbat pezetara ordaindu zuen jaso zuten duen zerrenda dauka Tiliñok.

1979an hartutakoa da ezkerreko argazkia, 12 trikitilarien omenaldia

Serafin Arantzeta "Oromiño" trikitilariari omenaldia egitetik hasi ziren Iurretako Jai Batzordekoak. "Ordura arte", kontatu digu Tiliñok berak, "trikitilariak erdi gordeta egon ziren: Guardia Zibilek soinua apurtuta batzuko..."

Bihar, Tiliño izango da trikitizaleen omenaldia jasoko duena: bere izena daraman biribilketak eskainiko dio Oskar Estangak.



MUSIKA> EMANALDIA

Cobra, The Riff Truckers eta Trumbo entzungai, bihar

Plateruena kafe antzokian joko dute hiru talde euskaldunek ekainaren 4an



Aurten *Thriller*izeneko diskoa kale-ratu duen eta Ekain Elortza berriz-tarra bateria-jotzaile duen argaz-kiko Cobra taldearen emanaldiak itxiko du Le Klip management taldeak biharko Plateruenean antolatu duen rock & roll gaua.

Energiaz gainezka egiten duten hamar kanta sendok osatzen duten taldearen bigarren diskoa zuzenean aurkeztuko du bihar gauean Cobrak Durangon: taldeak egin ohi duenez, are indartsuago bilakatuko dituzte kantak zuzenean. Hain zuzen ere, aurreko diskoa baino “zuzenagoa, metaleroagoa, agresiboa” da *Thriller*; musikariek eurek diotenez. Letretan, zinematik hartutako elkar-riketa eta esaldiak uztartu dituzte, eta kontzertuetan “watioak, izerdia eta rocka” eskaintzen dute.

Le Klip management taldeak antolatu du biharko hiru talde euskaldunen kontzertua

Durangoko Platerueneko biharko hitzordura beste euskal talde bi ere gonbidatu dituzte; Eako The Riff Truckers eta Trumbo taldeek ere joko dute. Aurretik Kashbad, Neubat edo Vice Presidents taldeetan joa duten musikariak elkartuta, orain urtebete inguru Gasteizen sortutako taldea da Trumbo. Taldearen izen beragaz kalera-tu duten lehenengo diskoa aurkeztuko dute Plateruenean: kanta “trinkoak eta gordinak” uztartzen ditu hirukote honek.

Rock doinuak zein blues eta country ikutua daukatenak eskaintzen dituen The Riff Truckers taldea da ekainaren 4an Plateruenean oholatzen arituko den hirugarren taldea: 2005en Ean sorturiko taldea da The Riff Truckers boskotea. ■ I.E.

IURRETAKO PLAZAN

Agur beroa eta hunkigarria egin zioten herritarrek Mari Tere Zugaza-Artazari

Kultura eta herrigintza uztartuz bizi guztian zehar egindako lana eta, batez ere, bere esku-zabaltasuna eta laguntasuna omendu zuten joan zen zapatu arratsaldean Mari Tere Zugaza-Artazaren hileta zibileratu zirenek

Joan zen zapatu arratsaldean, maiatzaren 28an, Iurretako Aita San Migel plazan batu ziren ehunka lagun Mari Tere Zugaza-Artaza iurretarrari agur zibila egitera. Iurretan, Durangaldean, zein Bizkaian bizi guztian zehar kultura eta herrigintza uztartzeko egindako lana, baina, batez ere, bere laguntasuna eta esku-zabaltasuna azpimarratu zuten Mari Tereren omenaldira batutakoek.

Dultzaina, pandero, txistu eta gitarra doinuek, lagun abeslarien ahotsak eta berbek, bertsoak eta olerkiek, euskal dantzek eta maitatu zuten lagun eta familiako oroitzapenek bete zuten Iurretako Aita San Migel plaza eguzkitsuaren isiltasuna.

Bizitzaren neurriko despedida egin zioten herriko kultur talde eta elkarteak bere ekarpenekin bizi arazi zituen emakumeari; lagunak, ikasle izandakoek, jai batzordean beragaz eskuz esku lanean jardundakoek, sindikalgintzan eta politikagintzan kide izandakoek, eta herri-kultura zabaltzen bidelagun izandakoek inguratu zituzten haren etxeak Mari Tereren agur benetako, herriko eta hurbilean.

Herri eta herriarentzako sorturiko kultura iraunarazi, bizi, eta mantentzeko Mari Tere egindako ekarpena azpimarratu zuten ekitaldian. “Nekez uztatu du bere sorteria sustraiak han dituenak”, dioen Sarrionandiaren olerkia irakurri zuten kultur etxeak.



Iurretako Mikel Deuna kultur elkarte-ko kide legez, ideiak konpartitzen eta ekitaldiak antolatzen jardun du bizi guztian zehar legez azken urteetan ere Mari Tere Zugaza-Artazak. Besteak beste, ekaineko Kale Kale kale antzerki jaialdia edo udazkeneko Musikaldia bultzatzen jardun du auzolanean Mari Terek.

Mari Tere Zugaza-Artazak herrigintzari eta kulturegintzari dagokionez bizitza guztian zehar praktikan ipinitako baloreak eta konpromisoa eredu hartu dituzte, besteak beste, maistra izan zutenek edo jai batzordean lagun izan zutenek zein bizitzan zehar beragaz topo egin zutenetako askok. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga
‘Etxe’
Musikaria

Festarik festa lan egin behar gauero

Uda datorrela! Aurtengo uda berezi honi ekiteko gogoz nago. Jende askorentzat uda eta oporrak batuta doaz. Batez ere, gazteentzat. Baina jende askok udan izaten dau lan gehien. Plazarik plaza aritzen diren erromeria musikariek, adibidez. Eta aurtengo esperientzia hori probatzera noa!

60 kanta ikasi behar, 30 kontzertutik gora, 4 orduko emanaldiak, batzuetan emanaldi bana bi tokitan eta egun berean, 5 egun jarraian kontzertuak ematen, gaueko ordu txikitik eszenatoki gainean... Hasi aurretik, beldurra ematen dau. Edozein herritan ikusten dira erromeriak, baina pentsa gaueko ordu txikietan egunero aritzea zein gogorra izan behar den. Jendea juergan ari den bitartean, norberak lanean ibili behar. Emanaldia berandu bukatu, kotxea hartu eta etxera. Baina hobe horrela gauaz lantegian egotea baino.

Rock taldeek kontzertuak emateko zailtasun handiak daukate; erromeria taldeek agendak topera daukate

Bitxia da gero, baina rock taldeek kontzertuak emateko zailtasun handiak dituzte. Erromeria taldeek, ordea, nahiz eta garai onenak ez izan, agendak topera daukate. Hor nabaritzen da euskaldunoi zenbat gustatzen zaigun parranda. Garagardo batzuk hartu eta plazan dantzan aritzea. Euskal giro ezin hobean, gainera. Eta horretarako uda ezin hobea da. Beraz, badakizue, aurtengo: “Festarik festa lan egin behar gauero...”

Euskal Herriko plazetan ikusiko gara!

MUSIKA> JAIALDIA

Bost euroko sarreratik batutako diru guztia Haitira bidaltzea zutabe duen jaialdia da ekainaren 10ean Plateruenean ospatuko dutena. Xabier Elías “Mongo” musikaria bultzatzaile izan duen ekimena da ahotan darabilguna, eta 10 musikariek eta Durangoko 20 antzezle eta dantzari hartuko dute bertan parte.

Mongok eta parte hartzen duten musikariek, dantzariak zein teknikariek ere “ezin-negon bat” konpartitzen dutelako batu dira irabazi ekonomikorik bilatzen ez duen jaialdi honetan. Bizkaiko ENHERen bitartez, Vía Campesinaren aldizkari batean egiten duen Mongok kazetari lana, eta Haitiko lurrikararen ondoren hango nekazarien elikadura subiranotasunaren alde abiatutako kanpainagaz egingo dute bat.

Jende oso gaztea bildu du Mongokinguruan, gizartea aldatzeko gogotsu dagoen “harrobia”, bere berbetan. Kontzertua bideoan jasoko du Ibai Elortzak, eta kontzertuaren grabazioa ere egingo dute disko batean jasotzeko: David Vallejo eta Karlos Gomezek burutuko dute lan teknikoak.

Artearen bitartez gizarte
sentsibilizazioa lantzea da
jaialdiaren muinetako bat

Artearen bitartez gizarte sentsibilizazioa lantzea da jaialdiaren muina: “Arteari zentzu sozial eta politikoa ematea”. Inguruko artistek oso ondo hartu dute ekimena.

Bigarren diskoari beste zentzu bat zelan eman pentsatzen jarrita, eta lehenengo diskoak diskete batez kaleratu bazuen, hau era independentean egitea erabaki du blueslariak. Zentzu sozial bat eman gura zion proiektu berriari, eta *Txoribigun* sortu du.

“Sistema injustu honen aurrean daukagun pasibotasunari eta sumisioari erreferentzia egiten dion hitz asmatua da”, diskoari izena ematen dion *txoribigun* berba, espainolezko “mingafria” hitzaren itzulpena, Mongoren berbetan. “Ezer egiten ez dugun artean denok gara *txoribigun*”, diosku. “Elkartzea ezinbestekoa” dela azpimarratu du musikariak, eta artea produktu salgarri baino gehiago, ideiak zabaltzeko bidea izan daitekeela defendatzen du.

Xabier Elías “Mongo”-k bi-hiru
urteotan sorturiko kantak
zuzenean grabatuko dituzte

Historian zehar haitiarrek jasandako zapalkuntza salatze modua ere bada jaialdia. *Haiti: zapalkuntza eta erresistentzia paradigma* berbaldea eskainiko dute, ekainaren 7an, Eva Mañez kazetari eta argazkilariak, Vía Campesinako Paul Nicholsonek eta Xabier Elíasek, Plateruenean.

Argazkiak proiektatuko dituzte, akto-reak eta dantzariak eta musikariak egongo dira oholtzan. Kanta “bluesero edo roke-roak egongo dira”, baina baita tarte intimo eta espiritualagoak ere; gizarteari zein norbere barruari begirako kantak.

Azken bi-hiru urteetan sortutako kantak dira datorren barikuko zuzenekoan grabatuko dituztenak. “Bluesaren erritmoak beltza” ipintzen diela kantei azaldu digu Xabier Elíasek, eta “zuria jazz ukitu intimoa-goak”. Letretan ere mezu inkonformista eta mina adierazten duten olerkiak ageri direla kontatu digu musikariak. Barrutik atera legez, “akatsak egiteko beldurrik barik” eta “inprobisaziorako, magiarako, aukera zabalik utzita” jardungo dute. ■ I.E.

Mongoren disko aurkezpena eta Haitiren aldeko jaialdia

Plateruenean, ekainaren 10ean, Mongo musikariak bultzatutako ekimena



ZINEMA> EMANALDIA

Hilean Behin zikloaren barruan, ekaineko proposamen legez eskainiko dute Elorrioko Iturri kultur etxean *Screaming Men* izenburua duen dokumentala. Ekainaren 9an, 19:30ean, izango da emanaldia.

Finlandian sorturiko eta gizonezkoek osatutako abesbatza berezi bat da dokumentalaren haria osatzen duena; fimaren laburpenean jasotzen denez, “errepertorioa oihuka interpretatzen duen korua”.

Abesbatzak emanaldia munduko edozein lekutan egiten duela ere, aurkezpenean esaten dutenez, entzulegoaren erantzuna beti omen da berdina: harridura.

Lau urtez finlandieraz *Mieskuoro Huutajat* izena daukan abesbatzaren kide izan zen Mika Ronkainen-ek zuzendurikoa da 2002an aurkeztu zuten dokumentala. Nazioarteko hainbat jaialditan jaso izan ditu lanak sariak. ■ I.E.

Abesbatza berezi bati buruzko dokumentala: ‘Screaming men’

Ekainaren 9an, Elorrioko Iturri emango dute Finlandian sorturiko filma



BERTSOLARITZA>

Bizkaiko umeen eta gaztetxo bertsolari txapelketaren finala

Ekainaren 3an, gaur, Bilboko Indautxu-ko El Carmen aretoan jokatu dute Bizkaiko Umeen eta Gaztetxo bertsolari Txapelketaren finala. Bermeon, Markinan eta Ondarroan jokatu dituzte finalaren aurreko kanporaketak, eta 14 urte artekoan seik eta 15etik 18ra artekoetan zortzi bertsolarik jardun dute gaur goizeko hitzorduan. Guztira, 100 bat bertsolari gaztek hartu du orain arteko kanporaketetan parte. Gaur Bilbon kantatu dutenen artean, lehenago ere txapelketa honetan saritutako Txaber Altube eta Aitor Bizkarrak abadiñarrak ere egon dira. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

Ekainak 3 21:30ean KONTZERTUA. Sarrera doan
VIII. DURANG[H]OTS JAM SESSION

Ekainak 4 22:00etan KONTZERTUA. 6-8 euro
COBRA + THE RIFF TRUCKERS + TRUMBO

Ekainak 5 19:00etan IKUSENTZUNEZKOA. Sarrera doan
Km.0. DISPERTSIOAREN HAMAIKA AURPEGI

Ekainak 7 20:00etan HITZALDIA ETA EZTABAIDA
HAITI: Zapalkuntza eta erresistentzia paradigma

Ekainak 10 22:30ean JAIALDIA. Sarrera: 5 euro.
TXORIBIGUN-HAITIren aldeko jaialdia

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300



ES-PUTO CABARET

El Espejo Negro

Ekainak 4 • 22:30

AMERIKANUAK

Nacho Reig, 2010

Ekainak 9 • 20:00

San Agustín
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

Hileko azken ostirala

Asko eta asko dira euskal presoek kolektiboak urratuak dituen eskubideak. Hamaika dira salatzen ditugun adibideak. Hala ere, feministok honen inguruan esateko zer daukagun pentsatzen ibili ondoren, gure gaitako bat aukeratu dugu. Ez da bakarra, ezta inportanteena ere; baina bada, eta horregatik aukeratu dugu. Bisibilizatzeko plazaratzen dugu, garrantzia emateko intentzio guztiarekin mahaigaineratzen dugu. Harremanak aukeratu ditugu. Harremanek (pertsonek arteko hartu-emanek, elkarrekintza flujoek) duten balio politikoa azpimarratzea erabaki dugu; sareek garrantzia ezinbestekotzat jotzen dugulako. Edozein arlo zein borrokan, sareek garrantzia ukaezina da. Eta gu guztion ongizatean harremanek (lagun, lankide, taldekide, kolektibokide, maitale, bikote, familia,...) zer nolako garrantzia duten esaten ados egongo ginateke; sareek nola babesten gaituzten pentsatzen hasten bagara, ukaezina da hauen garrantzia.

Kartzelak badaki nola eragin arlo honetan ere. Badaki nola mindu, nola zigortu, nola presoek bizitzen zirrikitu guztietan pozoina sartu. Isolamenduak, dispersioak eragindako distantziak, gutuneko kontrola, deien mugapena bezalako mekanismo guztiak dituzte beraien eskura, maitasun sareak josten saiatzen garenoi lana zailago bihurtzeko; gure presoek harreman sareak ahalik eta gehien estutzeko. Badira bi adibide, hemen plazaratzeko aukeratu ditugunak. Lehenengoa lagunak zerrendak dira. Ohitu gara horrela funtzionatzera, baina barruan dagoenarentzat zer suposatzen duen zerrendak egin behar izateak gogorra da; nor lehenengo, nor hurrengo sei hilabete... Badirudi maitasun eskala bat egin behar dela; honek korapiloak sortzen ditu harremanetan, eta ez da erraza ez, hau gestionatzen; ez barrutik, ez kanpotik; komunikazioa erabat baldintzaturik eta mugaturik dagoelako. Eta zer da harreman bat komunikaziorako askatasunik gabe?

Bigarren adibidea, maitale moduan sartzeko dauden mugak aukeratu ditugu. Kasu hauetan larriak izaten dira demonstratu beharrekoak; paperak egin behar izatea, ezkontzak, ezdakitzeko bisitetara jarraian joan “benetako” bikotea zarela demonstratzeko; finean, beraiek erabakitzea nor maite duzun eta nola, marionetak bailira/baigina sentitu arte.

Baina zer da hau? Ezkondu behar direla zer diren demonstratzeko? Baina nortzuk dira demonstrazio horiek eskatzeko? Nork jakingo du hobeto zer diren bi pertsona, zer harreman mota duten eta nolako, beraiek baino? Barruan dagoenak hala errekonozitzen badu eta kanpoan dagoenak baita ere, zer tranpa zikina da, hori guztia egin behar izatea derrigor, bikoteek kartzela sisteman dituzten “esku-menak” izateko?

Beraz, jarrai dezagun elkartasun sareak elikatzen, harremanetarako trabak gainditzeko eta maitasuna helarazteko geratzen zaizkigunak martxan jartzen. Aprobeitatu nahi dugu hemendik besarkada hegalarik bat bidaltzeko euskal preso guztiei.

‘Idazten didazunean’

(Egilea: Mikel Etxaburu)

idazten didazunean
ez ahaztu helbidea ondo jartzen,
irakurtzen dudanean
naukaten zuloaren zenbakia ahaztu dezadan,
nonbaitekoa naizela gogoratu dezadan
ez ahaztu helbidea ondo jartzen,
idazten dizudanean
postariak jakin dezan
nik ere badudala herri bat,
funtzionarioa konturatu dadin
bera dela hemengoa den bakarra,
ez ahaztu helbidea ondo jartzen
idazten didazunean.

Durangoko Bilgune Feminista

Ekainak 11, Arrasaten AHTaren aurkako manifestazio nazionala

AHT Gelditu! Elkarlanak datorren ekainaren 11rako manifestazio nazionala antolatu du Arrasaten *Tenemos argumentos para parar un tren, AHT gelditzera goaz!* lemapean. Manifestazioaren helburua AHTaren aurka dauden sektoreen bilgunea izatea da: azpiegitura honen obrak gelditzearen, gizariteari erabakitzearen eskubidea itzultzearen, eta eztabaida sozial zabal bat irekitzearen alde dauden sektore guztiak mobilizatzea.

Iazko udan, diru faltaren ondorioz EAEn AHTaren obrek izan zuten geldialdiaren ondoren, zenbait zatitan lanean dabilta berriz, baina azpimarratzekoa da, lanek erritmo izugarri motela dutela. Gainera, ‘Euskal Y’ deiturikoaren zenbait zatitan ez dira obrak hasi, hiriburuetako sarrerak ez dira definitu eta ofizialki obrak inauguratu dituzten zati batzuetan, ez dira obrak hasi. Adierazgarriak dira ere, azpiegitura honen obrek eragin dituzten salaketak, ingurumenaren aurkako ustezko delituengatik salaketak (Iurretako Orozketa auzoan), obren zarata dela-eta auzokideen salaketak, aurreikusitako gabeko sarraskien salaketak (Aramaio bidearen kasua), uraren harrapaketa irregularragatik salaketak,...

Nafarroako egoera bestelakoa da: obrak hasi gabe daude, eta Nafarroako Gobernuak dioenez uda honetan hastekoak dira. Horretarako, Castejon-Zuasti zatiko

desjabetzak hasi dituzte. Lurjabe gehienek eta udalek ez dute proiektuaren egoera ezagutzen, defentsagabezia larri bat sortuz. Bestetik, gogoratu nahi dugu, Sustrai Fundazioak Entzutegi Nazionalan Castejon-Zuasti zatiko DIA-ren kaduzitatea salatu zuela, hori dela eta, obra legalki hasteko Nafarroako Gobernuak DIA berri bat egin beharko luke.

Iparraldeko egoerari dagokionez, esan beharra dago, berriz ere LGV proiektuaren finantziazioaren inguruko eztabaida berpiztu dela; gogoratu dezagun gai honek eztabaida sutsua piztu zuela udal eta herritarrengan. Azpiegitura hau gainera, gaur egun, oraindik zehatz definitu gabe dago.

Bestalde, AHT Gelditu Elkarlanetik gutun bat helarazi diegu Aralar, Bildu, Nabai eta Ezkerrari beraiekin AHTaren aurkako borrokan inguruan hausnarketa batzuk konpartitzeko asmoz. Gutun horrek zera dio hitzez hitz:

AHTa ez da ingurugiroaren aurkako eraso bat soilik, gizarite eredu jakin baten tresna ere bada. Azpiegitura hau eraikitze eta mantentzeko behar den diru publikoak, lurralde antolaketan duen eraginak, bere izaera elitista eta eskusiboak, nekazal guneetan duen eraginak eta deslokalizazio industrialari ematen dion bultzadak, gizaritearen interesen aurkako proiektu bat bihurtzen dute.

Bada hamarkada bat makroproiektu hau gelditzeko borroka hasi zela. Azpimarragarria da, nola bere egunean AHTaren aurkako mugimenduak sentsibiltate ezberdinetako jendea bildu zuen, mobilizazio dinamika eta AHTaren inpartuen sentsibilizazioaren inguruko lan izugarria eginez eztabaida soziala lehen mailan ezartzea lortu zuen arte. Gaur egun, euskal Y deiturikoaren obrak jada hasita daudenean, ukaezina da AHTaren aurkako borroka, faktore asko direla medio, intentsitatea murriztu duela eta zentralizazio politikoa galdu duela. Hori dela-eta, proiektuak berak duen garrantziagatik, AHTaren eraikuntza lanen hedatutagatik eta ekonomia neoliberal berri baten sinbolo gisa duen garrantzia dela-eta, zuek zuzentzen gara hausnarketa gisa gai batzuk plantetzeko:

1. AHTak politika sozial eta ingurumenaren dakartzen ondorioak oso larriak izan arren, proiektuak gelditzearen aldeko borroka bigarren plano batean gelditu dela uste dugu. Beharrezkoa da gai honen inguruko eztabaida sozialari dagokion neurria berrezartzea. Oraindik aukera dugu AHTaren inguruko eztabaida berpizteko, berau gelditzeko aurrerapausu gisa. Krisi ekonomikoa eta eraikuntza lanen atzerapena alde batera utzita, Espainiar Estatuak ez du etsi azpiegitura honen inposaketan, eztabaida eta parte-hartze soziala ukatuz. Horregatik, AHTaren gaia berriz ere aktualitate politikora bueltatzeko deia luzatzen dizuegu.

2. AHTaren aurkako indarrak eta sektore desberdinak biltzeko baldintza sozial eta ekonomikoa daudela uste dugu. Proiektu honek dakartzen kalte sozial eta ekologikoen mailako erantzuna behar du. Indarrak batzeko garaia da. Gure herrian AHTaren aurkako gehiengo sozial bat badago, gehiengo hori aktibatzeak gai izan behar dugu gizaritearen hitza eta erabakia errespetatuak izan daitezen

Azkenik, Arrasaten egingo den ekainaren 11ko manifestazioa konbokatzeak arrazoiak azalduko ditugu:

AHTak suposatzen duen diru xahuketa salatu nahi dugu. Azken urteetako azpiegitura politiken ondorioz gastu publikoaren igoera neurribakoa izan da; gainera, hauek ez dute inolako onura ekonomikoa ezta sozialik ekarri; horrela aitortu zuen Jose Blanco ministroak iaz azpiegitura publikoaren politika sostengaezina zela esatean. AHTa eraikitzeak xahutzen diren baliabide publiko guztiak direla-eta, ondorio larriak sortu dira sektore publikoan: osasun zerbitzuen kalitatea txikitzea eta murrizketak hezkuntza eta zerbitzu sozialetan. Nola defenda daiteke eskubide sozialak bermatzeko dirurik ez dagoela, aldi berean AHTaren eraikuntza lanetan milaka milioi gastatzen dituztenean? Enpresari bakan batzuen aberasteko nahiak eta sustatzaileen interes pribatuak ongizate publikoaren gain lehen-tasuna dute, gizaritearen prekarizazioa eta mailaketa larrituz.

ΣAHTaren obretan ari diren langileek dituzten lan baldintza negargarriak ere salatu nahi ditugu. Jada 4 pertsona hil dira obretan, 10 ordu baino gehiagoko lan orduak eta lan istripuen prebentziorako neurriak eza gailentzen dira. Administrazioak laneko segurtasun faltaren eta lan istripuen aurrean begiak ixten ditu. AHTari loturiko lanpostuak sortzea, aberastasuna eta ongizatea gezurra besterik ez dira.

ΣAHTak naturgune eta ekosistemen txikitzea dakar, eta honekin batera, nekazal eta abeltzantza jardueren desagertzea. Horregatik, lurjabeak, baserritarak, udalak eta kaltetutako herriak gure lurraldea eta gure bizimodua defendatzera deitzen ditugu. AHTa lurraldearen antolakuntza orekatuaren hondamena da, izan ere, erdibidean dauden herri eta eskualdeak izango baitira, nekazal guneekin batera, obra izugarri honen ingurumenaren gaineko eragina jasango dutenak.

AHTa inposatu diguten eredu sozioekonomikoaren ondorio zuzena da, interes ekonomikoa pribatuak baliabide natural mugatuen gainetik ezartzen dituen ereduaren ondorio. Baina AHTa ez da gizarite honek sufritzen duen gatazka sozio-ekonomikoa bakarra, hor daude Boroako zentral termikoa, Muskizko Coke planta, Garoñako zentral nuklearra, Supersur-a, Gueñes-Itxaso goi-tentsioko linea elektrikoa, Castejon-go zentral termikoak, Zubietako erraustegia, Jaizkibel-ko superportua... eta azpiegitura hau egiteko ezinbestekoak diren harrobiak ere hor daude (Mañariko Markomin-Goikoa, Abadiñoako Atx-Txiki, Foruko Peña-Forua, Udalatz, Mutrikuko Olatz harrobia, Debako Sasiola, Cantera de Magna en Zilbeti ...).

ΣGure lurraldea defendatzeko deia egiten dugu, bere egunean Lemoiz gelditu zen, mobilizazio sozialak Nafarroako goi-tentsioko linea elektrikoak birplan-teatzera lortu zuen. Epaitegiek Castejongo zentral termikoen legekanpokotasuna aldarrikatu badute, Pasaiaiko superportuak inoiz baino zailtasun gehiago badi-tu, zergatik ez da posible izango AHTa gelditzea? AHT gelditzera goaz!

AHT Gelditu Elkarlana

Ingurumena2011

gehigarria

anboto

babesleak:



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

Mancomunidad
de la Merindad de Durango



ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxe: 94 623 17 99

CEMOSA

CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

Konpostatzeko proiektu pilotua Berrizen

Azaroan, 50 familiagaz, konpostatze kolektiboa egiten hasi gura dute, atez ateko sistema erabiliz

lazko irailean eta aurtengo otsailean konpostatze ikastaroak egin zituzten Berrizen, norberak bere etxean hondakin organikoak zelan konpostatu eta birziklatu ikasteko. 60 lagunek parte hartu zuten ikastaroetan, eta erabilitako konposta-ontzia ikastetxera eroan zuten gero, ikasleek, herritarrek legez, praktikak egiteko.

Herritar guztiek, baina, ez daukate etxean edo baserrian konposta-ontzia ipintzeko lekurik, eta ideia berria landu dute. Udagoienerako, esperientzia pilotu bat ipini gura dute martxan, 50 familiaren hondakin organikoak atez ate batuz. Familia horiek izena eman beharko dute udalak laster hasiko duen kanpaina batean.

Proiektuko parte-hartzaileek hondakinak etxe kanpoan, ontzi batean, utzi beharko dituzte, eta

behargin batek batuko ditu. Beraz, lana ere sortuko luke egitasmoak. Arduradunen asmoa, bilketa hori kotxe elektriko berri batez gauzatzea litzateke, ingurumenagazko errespetua bultzatu guran. Konposta-ontzi handia udaletxeko jardinean egokituko dute, eta kontrolaren ardura Azterlan ikerketa zentroak izango du, udalagaz urte baterako kontratua sinatu du-eta.

Udalak egin dituen kalkuluen arabera, urtean 50 bat tona hondakin konpostatuko lirateke, eta udalaren beharrezane aurre egiteko birziklatuko lukete; herritarrek loreontzietarako edo lorategietarako beharko balute, banatu ere egingo lukete konposta. Horretaz gainera, zabortegei eta errauskailura eroateak leharzkeen kostuak aurreztuko lirateke, eta CO2 emisioak ekidin.

Esperimentua

Jabier Azpitarte alkatearen berbetan, sentsibilizaziotik esperimentaziora pasatuko dira orain. Bere iritziz, konpostatzea alternatiba izan daiteke, eta gerora Berrizen zelan eta non egin ondorioztatu ahalko dute. Gorka Camara Hirigintza zinegotziaren ustez, egungoagaz alderatuz, "beste eredu bat da, bideragarria eta erakargarria herritar askorentzat".



Udalak egin dituen kalkuluen arabera, urtean 50 tona inguru hondakin konpostatuko lirateke herrian

Gure helburua: zure ongizatea Nuestro objetivo: tu bienestar

Gizarteen bizitza kalitatea zuzenean lotuta dago uren kalitatearekin. Ekosistema osasuntsua **kalitatezko ura**ri esker da iraunkorra. Izan ere, horrek **pertsonen ongizatean** aurrera egiten laguntzen du.

La calidad de vida de las sociedades depende directamente de la calidad de sus aguas. Un ecosistema saludable es sostenible gracias a un **agua de calidad**, que permite avanzar en el bienestar de las personas.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Eskolara oinez joateko proiektu pilotua abian Landako Eskolan

Umeek eskolara joan-etorriak zelan egiten dituzten aztertu dute Landako Eskolan. Ibilbide bi zehaztu dituzte bide hori elkarrekin oinez egiteko eta datorren astean egingo dute lehen proba.



Landako eskolara oinez ekimenaren lehen proba egingo dute datorren astean. Eskolara joateko ibilbide bi pentsatu dituzte, eta guraso boluntario batzuen laguntzagaz, ikasle talde batzuk ibilbide horietatik, geltokietan umeak batu ahala, gerturatuko dira eskolara ekainaren 6tik 10era.

Mugikortasunean eta umeen autonomian eragin gura du egitasmoak. Durangoko Agenda21eko sailak bultzatu du eta Udalsarea21ek finantzatu. Datorren asteko esperientzia pilotuaren emaitzak ikusi eta gero eskolan ekimena finkatu edo ez erabakiko dute, eta finkatuz gero, Durangoko beste ikastetxeei ere zabalduko zaie.

Umeek eskolara joan-etorriak egiteko dituzten ohiturak aztertu eta gero antolatu dituzte ibilbideak, eta datorren astean goizetan egingo dute proba, bederatziretarako umeak eskolara eramanez. Ibilbideetako batek irteera bi edukiko ditu; lurretatik -txapa lan-

Agenda21ek bultzatu du ekimena, eta proba ondo badoa, eskolan finkatu eta beste ikastetxe batzuetara zabaldu daiteke

tegi zaharra zegoen parke berritik- eta San Ignazio auzunetik irtengo dira guraso boluntarioz eta ikasleaz osotutako taldeak, eta Mikeldi kalean batuko dira eskolara jarraitzeko. Bigarren ibilbideak Kurutziaga kaletik irtengo du, Garai jauregitik.

Ibilbide horiek zehazterakoan umeak non bizi diren hartu dute kontutan, eta joan-etorriak mugikortasun eta irisgarritasun irizpideak kontutan hartuta diseinatu dituzte. Proiektuak aurrera jarraitzen badu, beharrezko bada beste ibilbide batzuk sortuko dituzte.

Inkesta

Udaberri hasieran hasi zuten *Landako eskolara oinez* ekimena, eskolako irakasle, zuzendaritza eta gurasoen parte hartzeagaz. Hainbat batzar eta mugikortasunaren gaineko diagnosi bat egin zuten: Lehen Hezkuntzako ikasleei galdeketa bat luzatu zieten, eta eskolarako joan-etorrien gainean hainbat ondorio atera daitezke ikasle eta gurasoek betetako inkestetik; Landako Eskolara umeen % 85 oinez joaten da, esaterako, eta hamarretik bat autoan doa.

Eskolarako bideari eta mugikortasunari buruzko inkesta bat bete dute Lehen Hezkuntzako ikasleek eta gurasoek

Umeen autonomiari dagokionez, erdia baino gehiago (% 51) nagusi baten laguntzagaz joaten da eskolara. Zikloka, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan umeen % 86 doa nagusiren batekin; bigarren zikloko umeen kasuan, % 54; eta 5. eta 6. mailako ikasleei dagokionez, ikasleen % 23ri nagusi batek laguntzen dio.

Bide segurtasunaren arloan, eskolarako bidean hamar ikasletik zazpik ez dute arriskurik somatzen. Inkestatuen % 30ek berriz bai, eta zebra-bideak, trena eta bidegurutzeak lako elementuak aipatu dituzte arrisku horiek zehazterakoan.

ESKOLARA OINEZ JOATEKO IBILBIDEAK

I. IBILBIDEA:


- **Bi irteera leku** ditu: lurretako parke berria eta San Ignazio auzunea (Mapfre aurrean)
- **2.geltokia:** Mikeldi kalean, idoloaren parean
- **Helmuga:** Eskolako alboko sarrera.

II. IBILBIDEA:


- **Irteera:** Kurutziaga kalean, Garai jauregi aurrean (lehenengo liburutegia)
- **2.geltokia:** Montevideo kalean, Etxebarri kiosko aurrean
- **3.geltokia:** Ibaizabal auzunean, Euskadiko Kutxa aurrean
- **Helmuga:** Eskolako sarrera nagusia

Landako Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleen ohiturak

Eskolara joateko moduak



Nogaz joaten dira umeak eskolara?



udalsarea21
jasangarritasuneko udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

DURANGO 21
Tokiko Agenda
Agenda Local

Energia alternatiboak Abadiñoko udal eraikinetan

Udal kiroldegi berrian eta igerilekuan eguzki energia termikoa sortzeko azpiegiturak eta ura berreskuratzeko sistema egokitu dituzte



Udal eraikinak argiztatzeko zein berotzeko beharrezko den energia bide alternatiboetatik lortzeko hainbat urrats eman ditu Abadiñok. Esaterako, udal pabilioi berrian eta igerilekuan eguzki energia termikoa sortzeko azpiegiturak egokitu dituzte. Horrez gainera, eraikin horie-

tan ura berreskuratzeko sistema ere ezarri dute; berreskuratzeko ura inguruko gunen berdeak ureztatzeko erabiliko dute.

Jubilatuen etxeko berokuntza sisteman ere energia berriztagarriak darabiltzate. Zorua sistema geotermiko bategaz (irradiatze-energia

eta eguzki bidezkoa bateratzen dituen) egituratua dago; horren bitartez berogailurako behar den energiaren %75 ez eze, elektrizitate kontsumoaren %80 ere aurrezten dute, Abadiñoko Udalak jakinarazitako datuen arabera.

Luze ez dela inauguratu duten Uribitarte parkeak behar duen energia sistema misto baten bidez sortzen dute. Eguzki plaka fotovoltaikoak eta aerosorgailuak bateratzen dituen sistema darabilte, hain zuzen ere. Eguzki plakek zein aerosorgailuek 6,5 kilowatt energia sortzen dute ordubetea; kopuru hori nahikoa da parkeak darabilen energia kantitateari aurre egiteko.


Udalak eragin gura duen beste eremu bat kale argien argiztapena da. Ahalik eta sistema eraginkorra bilatu guran, erreduktoreak eta telegestio sistema barneratuak dituen argiztapenaren alde egin dute. Kalkulatu dutena-

Jubilatuen etxean sistema geotermikoa ipini dute, eta handik eratorritako energiaren bidez berotzen dute eraikinaren barrua

ren arabera, argi sistema berriagaz atmosfera-
ra 197 tona CO2 isurtzea eragotziko dute, eta urtean 84.400 euro aurreztuko dituzte.

Tokian tokiko azpiegitura berrien eragin-kortasuna ez eze, sistema guztiak batuta aurrezte aurreikusi dutena ere kalkulatu du Abadiñoko Udalak. Eguzki energia termiko, fotovoltaiko eta eolikoagaz osatutako 11 sistema daude udalerrian eta urtero 29 tona CO2 isurtzea eragozten dute; 68.670 kw sortzen dute urtero. Gainera, soberan geratzen den energia saltzea aztertzen ari da Udala, urtean 6.000 euroko irabaziaz ekarriko lizio-keelarik.

Aipatutako proiektuok Aldunditik, Plan E-tik eta Energiaren Euskal Erakundetik jasotako diru laguntzekin burutu ditu Abadiñoko Udalak.



Haizearen indarretik energia berriztagarria sortzen

Orain lau urte, 2007an, parkea handitu zutenetik, 40 haize-sorgailuk osatzen dute Berriz, Mallabia eta Munitibarko lurretan dagoen Durangaldeko parke eoliko bakarra. Duela zortzi urtetik, haizearen indarretik sortutako energia berriztagarria produzitzen du Oizko parte eolikoak.

Orain 8 urtetik hona, haizearen indarretik energia ekoizten du Oizko parke eolikoak

Eólicas Euskadik enpresak kudeatzen du Oizko parkea, eta Iberdrola Renovables enpresak bultzatutakoa da bere jarduna.

Parkea ustiatzen duen enpresak nabarmentzen duenez, 90.000 lagunek urtebetea kontsumitzen duten elektrizitatearen adinakoa produzitzen dute Oizen. Bizkaiko

parkeen artean, potentzia handiena daukana da Mallabia, Berriz eta Munitibarko lurretakoa. Eólicas Euskadi enpresaren berbetan, urtero 87.000 tona CO2 emisio ekiditen ere laguntzen du Durangaldeko parke eoliko honek. Gure energia kontsumoak ingurumenari eragiten dion kaltea murrizten laguntzen du,

beraz, energia lortzeko haizearen bidezko sistema honek.

Planta termoelektrikoen alternatiba legez aurkeztzen dute haizearen oinarritutako sistema.

Besteak beste, Kiotoko Protokoloan eta Espainiako eta Euskadiko Plan Energetikoetan jasotzen denez, Euskadin, Espainian zein Europan sortzen den energia guztiaren %20 gutxienez energia berriztagarrietatik lortzea da helburua.

90.000 lagunek urtebetea kontsumitzen duten adina elektrizitate produzitzen dute

Oizko parkean sorturiko energia kudeatzen duen Iberdrola Renovables enpresak azpimarratzen duenez, eoliko bezalako energia berriztagarriek "berotegi efektua gutxitzen eta lurraldeko baliabide naturalak iraunarazten laguntzen dute".

Espainiako Red Eléctrica enpresaren datuen arabera, energia ekoizpen osoaren %16,9 da gaur egun haizearen indarretik sortutakoa. Energia produkzio osoaren %39,9 da, iturri horren arabera, bide berriztagarrietatik sortutakoa.



www.iberdrolarenovables.es

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Itzalaldi nuklearra

Gaur jaiki naizenean, albiste honek piztu du nire arreta: “Alemaniak erabaki du itzalaldi nuklearra 2022. urterako aurreratzea”. Mundu osoan barrena jardunean dauden 442 erreaktoretatik, 17 Alemanian daude. Izan ere, aldamenean dugun Frantzia da energia nuklearraren mendekotasun handiena duen herrialdea. Hark 58 erreaktore ditu; guk, berriz, 8. Sozialista naizen aldetik, eta herritarra naizen aldetik ere bai, zentral nuklearren aurka dudak jarrera azaldu nahi dut. Zentral nuklearrak sortzen duten energia pixka bat merkeagoa da, baina izan ditzaketen ondorioak gainerakoak baino askoz garestiagoak dira. Zer egingo dugu hondakin nuklear guztiak?

Aspalditik, kontsumitzaileek hautatu ahal dugu energia nori erosi. Orain, zer energia-mota kontratatuko dugun ere izango dugu aukeran, energiaren sorburua aintzat hartuta. Hala, energia berriztagarrien erabilera sustatu ahal izango dugu. Hargatik, herritarra naizen aldetik, zerbait egin behar dut, zerbait egin ahal dut. Eragina izan dezakegu, enpresak behartu ahal ditugu elektrizitate gehiago sor dezaten iturri berriztagarriak baliatuta.

Ez dezagun energia nuklear gehiago kontsumitu, bazter uzteko modukoa baita. Har ditzagun gure eguneroko bizitzako erabakiak, eta bultzatu egin dezagun gurean ere itzalaldi nuklearra aurreratu dezaten.

Bultzatu egin dezagun gurean ere itzalaldi nuklearra aurreratu dezaten

Enpresak behartu ditzakegu iturri berriztagarriekin sortu dezaten publizitatea

gutunak@anboto.org

Elorrioko Bilduk herriari

Elorrioren eta Euskal Herrian burutu berri diren hauteskundeetan garbi geratu da udalen eta foru aldundien kudeaketaz harago, gatazkaren konponbidea eta Euskal Herriak herri bezala duen etorkizuna egon direla jokoan. Denek aitortzen dute Bilduren agerpenak, bere 315.000 botoekin, mapa politikoa goitik behera eraldatu duela, nahiz eta mapa hori urteetako illegalizazioen ondorioz “adulteratua” mantendu dutela ezkutatzuten duten oraindik. Bilduren emaitzek garbi uzten dute euskal jendarteak ziklo politiko berri baten eta politika egiteko modu berri baten aldeko apustua egin duela, eta udal zein aldundietako gobernu zein aliantzek horren isla izan behar lukete.

Elorrioren ere, Bilduren garaipena eztaba daezina izan da. 1.741 botoekin gehiago osotik 15 bototara geratu gara. Sei zerrenda edo alderdi aurkeztu diren herrian, Bilduk boto guztien %42 eskuratu du. Datu hori ikaragarria da! Konparatzeko, Gipuzkoan Bilduren garaipena erabatekoa izan den lurraldean, Bilduk botoen %35 eskuratu du. Zerbaki absolutuetan ere 1.741 boto horiek historikoak dira, 1979tik Elorrioren egindako bederatzi udal hauteskundetan behin baino ez baititu alderdi batek boto horiek gaintitu: duela 28 urte, PNVk, alderdia zati-tu aurretik. Beste datu bat: D’Hont legearen aplikazioan, zinegotzi kopuru bera badagokigu ere, 236 botoko aldea ateratzen dio bigarren geratu den PNVri. Hitzik gabe dena esaten duten zerbaki borobilak dira, eta, beraz, Bilduren olatura igo zareten guztioi gure zorionik eta eskerrik beroenak!

Gainontzeko alderdien emaitzei dagokienez, PNV geratu da bigarren, 1.505 botoekin. Duela lau urteko emaitzak hobetu baditu ere, ezin da ahaztu ordukoak, 1.245 botoekin, bere inoizko emaitzarik kaskarrenak izan zirela; lurra jo zuela, alegia. Orain, goranzko joera izan badu ere, lehen aipatutako bederatzi hauteskundeetan hirutan bakarrik jaso ditu orain baino boto gutxiago. Irabaztetik urrun geratu dira, bestelako irudia eman nahi badute ere.

Duela lau urte elkarrekin joan ziren Aralar, Ezker Batua eta “herritar talde” batek 477 boto eskuratu zituzten. Oraingo honetan, bakoitza bere aldetik joan da, eta bi zerrenden artean 360 boto eskuratu dituzte, inongo ordezkariarik lortzera iritsi gabe.

Espainiako alderdi unionistek (PP-PSE) dagokienez, PSE-ren eskuetan zegoen zinegotzia PPra pasatu da. PSEk toki guztietan bezala, Elorrioren jaso duen kolpeari esker, PPK, ia botorik igo gabe, ultraeskuineko zinegotzia izango du Elorrioren. Horrek herrira ekar lezakeen distorsioa baztertu gabe, boto “espainola” (PP+PSOE) inoizko txikiena izan da, 499ekin (2007an 622, 2003an 967, 1999an 793, 1995ean 764...). Egunero, Intereconomian, VEO7n, ABCn, Libertad Digitalen, COPEn...garbi aitortu du tipo horrek zertara datorren arnasarik ere hartu ezin omen daitekeen “feudo” honetara. Gainontzekook gatazka konpondu eta bakea egitea helburu dugunean, bera gerra egitera datorren “el gudari de la libertad” omen da. Elorrioko “bastión”-era datorren parakaidista da, eta udaletxeko giltza bere eskuetan dagoela aieratzen dabil bolo-bolo. Kanpainan eta gero ere esan du norekin egin nahi duen negozioa: PNVrekin. Modu horretan, PNVren bizkar gainean utzi du Don Carlosek bere laguntzarekin zerrendarik bozkatuenari alkatetza kentzeko erabakia.

Gure aldetik, ez dugu probokazioetan erortzeko inongo asmorik, ondo baitakigu zein den gure estrategia eta herritarren gehiengoaren babesa jaso duela. Erantzukizunez jokatzeko garaia da, eta herriak argi eta garbi esan du zeren aldeko apustua egiten duen: gatazka konpondu eta indarrak batuta Euskal Herria independentziara bidean jartzea. Gainera, Elorrioko udala gobernatzea ere Idoia, Xabi, Olga, Jaione, Jon Ander eta Fernani dagokiela esan dute herritarrek. Orain PNVri dago-

kio, zein den egin nahi duen bidea eta norekin egin nahi duen. Beraien Bizkai Buru Batzarreko lehendakari den Andoni Ortuzarrek kanpainan Elorrioko plazan esan bezala: “...los del PP, esos fachas, que desayunan todos los días con el yugo y las flechas...”. Orain bidelagun izango ahal dira?

Beste modu batera esanda, guk Gernikako Akordioan zehaztutako bidea egingo dugun bitartean, Gernika bonbardatu zutenen eskutik joango al da PNV? Erdiko biderik ez dagoela argi geratu denean, erabakitzeke denbora agortzen ari zaie. Egoerak eskatzen duen erantzukizunari heldu eta elkar ulertzeko ateak zabaldu dizkiogu EAJri, eta Elorrioren putzu beltzera ez botatzeko ematen digun arduragatik ez dugu ate hori geuk itxiko.

Elorrioko Bildu

Irtenbide zoroak Elorrioko Iturritik ...

Udal hauteskundeetan emaitzak Elorrixon badauka ondorioarik. Herriak hautatutako zinegotziek oraingoan ezin batera lan egin? Ala Bai? 6 Bildu + 6 EAJ + 1 PP. Matematikak jokoan eta PPKo “arbitroa” alderdi baten alde.

Dohainik esan omen du emango duela alkatesa baten alde botoa. Baina batzuek larriki usaintzen dogu horren ondorioa.

Agian ez da alderdi baten alde bakarrik, nire ustez, baizik eta beste alderdiaren aurka.

Baina, zergatik euskaldunon artean ezin dugu elkar ulertu errespetuz hitzeginez eta akordioan alde? Zergatik ezin dugu izan alkatesa eta alkatesa-ordea urte bina alderdi ezberdinekoa?

Hamabi zinegotzi, barkatu hamairu, ezin joan traineruan denok alde berdinerara arraunean? Arriskua non dago? Lema nork eramanean, arraunlaririk gabe, herria geldirik egon edo olatuen dantzan nora ezean? Sokatirako talde biok soka tinko duzue, erdian epaia, noren alde? Noren kalte? Bakebidean pausoak eman dira azken urtean. Bizirik da hausnarketa herriko bihotzean.

Talde biok atzetik dituzue entrenatzaileak eta animatzaileak, baina zelaian aukeratuak zuek izan zarete. Animo eta topatu leku-mahai neutral bat, ez Batzoki ez Portaleku, erlojua eta mugikorrak etxean utzi, eta hitz egin eta erabaki, zeuek bakarrik lasai. Aholkulari eta entrenatzaileak: errespetatu zuen konfiantzan izendatu zenituzten taldekideak. Herriaren gehiengoak asko eskertuko dizuelakoan nago. Izan lasai, bizi lasai. Erabaki zuzenak horrela hartzen direla esan didate sarritan.

Neure aldetik, itxaropena dot, beste hainbat herritarren antzera, elkarrekin konpontzeko gai zaretela. Eskerrik asko aurretiaz ta asmatu demokrazia joko berri bat! Non galtzaile eta irabazlerik ez den. Herriak bizitzen jarrai dezan lasai, mehatxurik gabe, eta Gernikako Akordioa haizeak Elorrioko Gernika plazara berriz etor zaitezte bakezko eta anaitasuneko ilusioak bizirik mantentzera. Mesedez, Benetazkoak eta ez itxurazkoak.

Herriak eman du bere hitza, eta nik ulertzen dudanez, gehien-goak nahiko luke biok bizi izan zaitezten elkarrekin ezkondu. Gure seme-alabek ikusi eta bizi dezatela Elorrioren elkar konpontzeko gai garela, eta indarkeria eta beldurrek ilundutako urteak oroimenean, biharko egunerako balio dezatela, ez gaitezen bultzatu negarretara, baizik eta herriko lanetara. Ezin ditugu ahaztu gurasoak eta gure ondorengoak. Udaletxea herriaren etxea, eta bere hormetan idatzirik dagoenez, egia eta justiziaren etxea izan dadila.

"Itsasoko urak handi dire,
murgildu nahi dutenentzat,
gure herriko lanak handi dire
astun dire zatituz gaudenentzat"
(Xabier Lete)

Mikel Ugalde Begoña



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko ekainaren 3a - 10. urtea - 418 zk.

Laguntzaileak:




Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar
Administrazioa:
Miren Abasolo.
Publizitatea:
Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzaileak: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**




**EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK**



KIROLAK >

“Beti egoten da sorpresa emateko aukera, eta horretan saiatuko gara”



Egiako eta Bizkaiko txapelak jantzi ostean, Biharko Izarrakekoagaz beste horrenbeste egiten saiatuko da Azpiri.

Aretxabaleta markinarra alboan duela, Biharko Izarrakeko finala jokatu du gaur Igor Azpiri elorriarrak, Mendizabal eta Untoria kontra. Faboritoak ez izan arren, ezustekoa ematen ahaleginduko dira.

Biharko Izarraken parte hartzen duzun zenbatgarren aldia da?

Iaz hartu nuen parte lehenengo biderrez; finalerdietara heldu nintzen, eta aurreko pauso bat aurretiko nago, finalean.

Itxaroten zenuen hain urrun heltzea?

Egia esateko ez. Aurreko, behintzat, ez. Txapelketa hasi aurretik txarto ibili naiz eskuetatik; gozatu barik. Ez nuen espero hain urrutik heltzea. Partiduak jokatu ahala jokoa hobetu dut, eta finalera heltzea lortu dut. Ligaxkan partidu bakarra galdu dut, eta finalerdikoagaz, sei partidu irabazi ditut guztira.

Finalean Aretxabaletagaz batera jokatu duzu. Zeintzuk izango dira finaleko gakoak?

Hasieran Mendizabal eta Untoriaren jokora moldatu eta horri eustea gakoa izango da. Oso pilotari onak dira, eta hasieratik irabaztera irtengo dira; asko jokatzen dute biek, eta erasokor irtengo dira. Gure helburua aha-

lik eta ondoen jokatzea izango da; eta ahal izanez gero, finala irabaztea. Neure aldetik lan handia egin beharko dut defentsan, Mendizabal asko sartzen den eta asko arriskatzen den pilotaria da-eta; askotan ondo egiten du, gainera. Untoriak zelan jokatu

Hasieratik erasokor irtengo dute, eta eustea izango da gakoa

Pena da Landaburu ez sailkatu izana, batera jokatu genuen-eta

tzen duen ezaguna da; debutatzekotan ei da, gainera. Irabaztera irtengo da, ziur.

Mendizabal eta Untoria jotzen dituzu faboritotzat, beraz?

Bai nik bai gainerakoek ere eurak jotzen dituzte faboritotzat, baina beti gertatu daitezke sorpresak, eta hori aprobetxatzen ahalegindu beharko dugu.

Untoria txapelketako atzelari onena dela esan dute askok. Zer deritzozu?

Beragaz jokatzeak sekulako ziurtasuna ematen dizu. Finalerdietan beragaz egotera, nahiko lasai egon nintzen. Finalean, aldiz, bere aurka jokatu beharko dut.

Hainbatean bikote izan duzun Landaburu finalaren atarian geratu da.

Sekulako pena izan da, finalean batera jokatu genuen-eta. Biok elkarrekin jokatuz gero, aukera handiak izango genituzke finala irabazteko; urte guztian zehar batera jokatzen dugu, eta oso ondo ulertzen dugu elkar. Hasieran makal ibili ginen biok, baina gora egin dugu partiduak jokatu ahala.

Biharko Izarrak erakusleiko ona dela esan ohi da.

Azken aldian txapelketa irabazi

duten atzelari askok profesionalen debutatu dute gero; hori zerbaitegatik izango da. Euskal Herriko pilotari onenek parte hartzen dute bertan, eta afizionatu mailako txapelketa onenarikoa dela esaten da.

Eta zuk, profesionalen debutatzeko aukerarik ikusten duzu?

Oraingo ez nago horren zain. Badakit zein egoeratan dagoen debutatzeko kontua, eta orain txarte bertan ez dut sentitzen debutatuko dudarik. Gaur egun asko nabil disfrutatzen pilotan, eta nire asmoa disfrutatzen jarraitzea da; partidak jokatzea, lesioek errespetatzea eta disfrutatzen jarraitzea. Profesionalen maila hor dago, eta debutatzea lortzen badut, ondo; hala ere, oso gustura nago afizionatueta jokatzen.

Bestela, zer moduz denboraldia?

Orainguz Bizkaiko Txapelketa eta Egiakoa irabazi ditut aurreko. Ostean, lau hilez txarto ibili naiz eskuetatik, eta ez dut maila ona eman. Orain, Mallabiko finala eta Bergarako Hiria txapelketa ditut buruan; Bergarakoan finalerdia jokatu dut martitzenean. Udan, berriz, Antiguako txapelketa izango da nire helburua. Iaz finalera heltzea lortu genuen; ea aurreko noraino ailegatzeko kapaz garen. ■ A. Maldonado.

Kirolari Ateak Zabalik jaia ospatuko dute etzi lurretan

Kirola sustatzeko asmoagaz, Kirolari Ateak Zabalik eguna ospatuko da etzi lurretan. Goizean zehar hainbat ekimen egingo dira; Olaburu frontoian umeentzako pilota partidak eta herri-kirolak egongo dira; Bixente Kapanagan atletismo eta futbol jokoak egongo dira. Goizean zehar hainbat martxa ere egingo dituzte; lehenengo martxa zikloturista izango da; 09:00etan abiatuko da. Ostean, motor-martxa eta mendikoa abiatuko dira; 10:00etan eta 11:00etan hasiko dira, hurrenez hurren. Parte-hartzaileen artean opariak banatuko dituzte. ■ A.M.

Kadete talderako probak egingo ditu Kurutziagak

Datorren urtera begira kadete taldea sortzeko asmoagaz, hautatze probak egingo ditu areto futboleko Kurutziaga taldeak. Proba horiek 1996 eta 1997an jaioak gazteei bideratuak izango dira; ekainak 6, 8 eta 10 egunetan egingo dira, arratsaldeko 18:00-19:00 bitartean. Hautatze proba horiek, Landako kiroldegian egingo dira. Apuntatzeko azken eguna etzi, hilaren 5ean, izango da. Apuntatzeko asmoa duenak, www.kuru.es helbidera jo beharko du; beste aukera bat 639 457 064 telefonora deitzea izango da. Aretoko futboleko kadete mailako lehenengo taldea litzateke Kurutziagak sorturikoa. ■ A.M.

Emakumeen Saria jokoan martitzenean

Duranguesa txirrindulari elkar-teak antolatuta, 10. Emakumeen Saria jokatu da martitzenean. 200 txirrindulari inguruk parte hartuko dutela aurreratu dute antolatzaileek, Marianne Vos, iazko txapelduna, eta Eneritz Iturriaga abadiñarra, tartean; UCI sailkapeneko txirrindulari garrantzitsuak ekartzeko ahalegina egin dute. Guztira, 110 km izango ditu ibilbideak, eta eskualdeko hainbat herri zeharkatu ditu. Duranguesa txirrindulari elkar-teak 75 urte bete ditu aurreko, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. ■ A.M.

Pozik elorriarrak, igoera bikoitza lortu ondoren

Mutilek hirugarren igoera lortu dute jarraian, eta Ohorezko Mailan arituko dira. Neskek, berriz, "erraz" lortu dute lehen mailara igotzea



Hirugarren igoera jarraian lortu dute elorriarrek. Juanra De La Cruz

Denboraldi historikoa burutu dute Elorrioko futbol taldeek. Gizonezkoek Ohorezko Mailan aritzeko txartela eskuratu dute; neskak, oster, Bigarren Mailako txapeldun izan dira, "abantaila handiagaz", eta 2011/2012 denboraldian Lehenengo Mailan arituko dira.

Hain zuzen ere, urte bakarra iraun die Lehenengo Mailan gizonezkoek; hirugarren igoera kateatu dute elorriarrek. Gontzal Arana jokariaren berbetan, "ezustekoa" izan da igoera lortzea, eta "oso pozik" daude. Denboraldiko azken jardunaldian Arratiaren aurka bina berdindu ostean lortu dute igoera elorriarrek. Sailkapeneko hirugarren postuan geratu dira elorriarrek, eta Gatika eta Erandio-rekin batera lortu dute igoera.

Talde lana gako nagusi

Azken urteetako lorpenen gakoa talde lana dela uste du

Aranak: "Beste talde batzuen ezaugarri nagusia banakotasuna diren bezala, gurean taldea da gakoa". Horrez gainera, herriarren babesa eta taldeko giro ona ere azpimarratu ditu. Emakumezkoen taldearen kasuan ere ezaugarri horiek nabar-

Arana: "Gakoa taldean dugun giro ona izan da. Horrela lan egitea errazagoa da".

Bi taldeek maila arteko jauzia igarriko dutela uste du Aranak: "Alde handia dago".

mendu ditu Aranak: "Oso talde ona osatzen dute". Horrez gainera, taldekideek izandako jarrera "gogotsua" ere azpimarratu du: "Entrenamenduetara 18-20 hurbildu izan dira, eta horrek lan egitea errazten du".

Datorren denboraldira begira, elorriarrek ez dute erabakirik hartu. Hala ere, bi taldeek orain arte lege jarraituko dutela aurreratu du Aranak: "Taldekide gehienok jarraituko dugula uste dut". Helbururik ere ez dute zehaztu elorriarrek. "Itxaropentsu" agertu arren, Aranaren berbetan Ohorezko Mailarako jauzia igarriko du Elorrioko futbol taldeak: "Sufritzea tokatuko zaigula uste dut".

Emakumezkoek ere maila aldaketa igarriko dutela iritz du Aranak: "Aurten erraz irabazi dute txapelketa, alde handiagaz, baina jauzi handia dago Bigarren Mailatik Lehendabiziko Mailara". ■ A.M.

Berrizek maila galdu du zazpi denboraldi eta gero

Kulturala, aldiz, igoera fasetik kanpora dago Rayo Cantabriaren kontra galdu ondoren

Zazpi denboraldiren ondoren, Berrizek Ohorezko maila galdu du. Datorren denboraldian Lehenengo Mailan arituko da, beraz. Lehenengo itzuliko emaitzen ondoren, otsailean Jose Manuel Loiti izendatu zuten entrenatzaile; Andres Olabarria ordezkatu zuen. Loitiren gidaritzapean emaitzak hobetu

Berrizek 2003/2004an lortu zuen Ohorezko Mailara igotzea

ziren, eta azken jardunaldira bizi-rik heldu ziren berriztarrek; hala ere, ezin izan dute jaitziera saihestu. 2003/2004 denboraldian lortu zuen igoera Berrizek.

Bestalde, Kulturala 2. B mailarako igoera faseko lehenengo kanporaketan kaleratu dute. Joanekean 2-1 irabazi zuten durangarrek. Itzulikoan, berriz, Iker Martinezen golari esker ia partida osoan aurretik joan eta gero, 94. minutuan kanporaketa berdindu zuten kantabriarrek Penaltietan erabaki zen kanporaketa; 4-2 galdu zuten durangarrek. Beste urte batez, Hirugarren Mailan arituko da Kulturala. ■ A.M.

Agustin Alkorta
•Futbol entrenatzailea



Gogoratzeko urtea

10/11ko denboraldia ez dugu erraz ahaztuko Durangaldean, futbolari dagokionez behintzat. Lortu diren emaitzek, lurralde honetan kalitatezko jauzia eman dela adierazten dute. Gogoratzeko urtea da dudarik gabe. Batetik, Kulturala: azkeneko urteetan, zalantza asko sortu duen taldea, baina aldaketa handia emanda play-offetarako sailkatu dena bost urte eta gero; lehenengoan kaleratu dute baina penalti bik ezin dute denboraldi borobil bat zikindu. Bestetik, Zornotza: inoiz ez du jokatu 2.B mailan, eta aurten, ligan denen gainetik pasatu eta gero, igoera lortu du.

Elorriori buruz, zer esango dut... la kalifikatibo guztiak amaitu zaizkit. Hirugarren igoera jarraian! Markak hautsi dituzte. Eta Ohorezko mailan, zer erronka hartu dezakete elorriarrek? Eta lurreta? Urtero hor aurrean eta urtero huts. Baina, aurten igoerak ez die ihes egin; partidurik galdu gabe eta 14 gol jasota soilik, gainera. Azkenik, Zaldia. Ikusgarritzko erregularitasuna erakutsi dute; euren zelaian, batez ere. Entrenatzailea naizenez, txoko honetatik entrenatzaileak eta euren laguntzaileak omendu nahi ditut: Asier, Alfonso, Angel, Jon Gurutz eta Iñaki... Zorionak! Eta hau gutxi balitz, Athletic-en, bizkaitarren artean, Durangaldekoak nagusi dira (Itu, Amore, Usta, Koi, Castillo). Amaitzeko: futbolariek buelta asko ematen dituzte eta sasoi onak moduan, txarrak ere etorriko dira. Horregatik, lanean jarraitu behar da sasoi txar horiei aukerarik ez emateko.

Tabirakoko seniorrak Bizkaiko txapeldun

Finalean puntu bateko aldeagaz (63-62) irabazi zioten durangarrek Leioa Berriri



Zaleen berotasuna jaso zuten durangarrek Landakon.

Tabirakoko mutilen senior taldea Bizkaiko txapelduna da, Landakon jokaturako Lauko Finala irabazi ondoren. Tabirakok, Leioa Berriri, Centro Salmantinos eta Erromoko Ezkorak taldeek jokatu zuten. Finalerako txartela Erromoko Ezkorak 64-53 irabazi ondoren lortu zuten durangarrek. Finaleko partiduan 63-62 gailendu ziren durangarrek.

Bestalde, kadete mailako neskek Espainiako txapelketa jokatu dute asteon; final zortzi-

renetan kaleratu ditu Marbellak; 71-66 galdu zuten. Era berean Tabirako Jesuitak mutikoen taldea (12 urte) Bizkaiko liga irabazi du. Informazio gehiago www.anboto.org-n. ■ A.M.

Kadete mailan final zortzirenetara heldu dira Espainiakoan



**2012ko egutegiaren
argazki lehiaketa**

hartu egizu parte!



Oinarriak: anboto.org

Sartu gure bilatzailean "egutegi lehiaketa" berbak

12 hile 12 herri

Motorzaleek zita dute Abadiñon, asteburuan Nazioarteko Quad Opena ospatuko da-eta. Abadiñoko Endu-Quad Motor Club taldeak antolatu du ekimena, eta bertako lehen-dakari den Javier Heredoren berbetan, orain bi urte batutako jendetza batzea da helburua. "10.000 pertsona inguru batu ziren orduan".

Egitarau oparoa prestatu du Abadiñoko taldeak. Zapatuan, pilotu profesionalak izango dira protagonista. Goizeko 10:00etan entrenamenduak hasiko dira; 16:00etan, ostera, lehia. Quad-cross eta Cross-Country mailetan lehiatuko dira. Iluntzean, 20:30 inguruan, sari banaketa egingo dute. Herederoren arabera, 60 pilotu inguruk eman du izena lehia horietarako, eta etxekoez gainera, Estatuko zein

60 gidari lehiatuko dira Quadcross eta Cross-Country mailetan

nazioarteko gidariek ere jardungo dute nor baino nor gehiago. Domekan, berriz, erakustaldi eta ibilaldien txanda izango da. Goizeko 09:00etan Quad martxari ekingo diote 100 pilotu inguruk; Durangaldea zeharkatuko du 60 km-ko ibilaldi horrek. Goizean eta arratsaldean, ostera, 4x4en erakustaldia egingo dute.

Aldaketak egitarauan

Ekimenaren arrakastan eragin handia izan ohi du eguraldiak, Herederoren berbetan. Hori

Nazioarteko Quad Opena Abadiñon, hirugarrenez

Lehenengo edizioan lortutako arrakasta errepikatzeko asmoa daukate antolatzaileek. Asteburu osorako egitaraua prestatu dute horretarako.



Eguraldiak baldintzatu dezakeen arren, ikuskizuna ziurtaturik egongo da Abadiñon.

dela-eta, aldaketak egin dituzte egitarauan. "Lehenengo edizioan legez, Erdi Aroko Azoka egongo da". Nobedade nagusia, ostera, gauerako iragarri dute. "Gauak girotzeko asmoagaz, DJak ekarriko ditugu zapatu

Domekan 4x4 erakustaldiak izango dira ikusgai

gauean", dio Herederok. Horrez gainera, umeentzako puzgarriak eta Motorraren Azoka mantenduko dituzte. Ekimenak 60.000 euroko aurrekontua dauka; aurrekontuaren % 25 Abadiñoko Udalak ipiniko du. ■ A.M.

Beteranoen arteko errugbi partida jokatu dute bihar

Elorrioko errugbi taldearen 30. urteurrena dela-eta, DRTren aurka jokatu dute

Elorrioko errugbi taldeak hiru hamarkada bete ditu aurtan. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte elorriarrek. Lehenengoa zapatu honetan jokatu den beteranoen arteko partida izango da; 17:00etan hasita, Elorrioko eta DRTko beteranoen taldeek elkarren kontra jokatu dute. Partidua Elorrioko San Roke zelaian

jokatu da. Urteurrenako ekitaldi nagusia, ostera, ekainaren 18an ospatuko den jaia izango da; egun osorako egitaraua antolatu dute. ■ A.M.

30. urteurrenako ekimen nagusia ekainaren 18an ospatuko dute

II. Peter Memorialeko finala jokatu dute gaur

Jose Mari Agirre "Peter" zenaren omenezko bigarren jaialdiko finala jokatu dute gaur, 19:30ean, Durangoko Ezkurdi pilotalekuan. Afizionatu mailan, Agirrezabal-Aldape eta Uriora-Ajuria bikoteak lehiatuko dira. Txaber Zabala antolatzailearen berbetan, finala "irekia" izango da. "Pilotariek maila ona eskaini dute orokorrean, eta finalean ere ikuskizun ona eskainiko dutela aurreikusten dugu". Horien aurretik, 22 urtez azpikoen finala jokatu dute; bertan, Arabiourrutia-

Agirrezabal-Aldape eta Uriora-Ajuria bikoteek jokatu dute finala

Zenarruzabeitia eta Gutierrez-Kamera bikoteak arituko dira nor baino nor gehiago. Guztira, 32 pilotarik parte hartu dute txapelketan, eta afizionatuek eskainitako maila azpimarratu du Zabalak. Bestalde, "kezka" agertu du ikusle kopuruak behera egin duela-eta. ■ A.M.

Santrokaz jaia ospatu zuten maiatzetan Astola taldeak antolatuta

Guztira, hiru taldetako 120 ume inguruk parte hartu zuten Astolako igerilekuko jaian

Abadiñoko Santrokaz jaien baitan, jaialdia ospatu zuten maiatzaren 29an Astolako igerilekuan; Astola igeri taldeak antolatu zuen ekitaldia. Bertan, Bizkaiko hiru taldek parte hartu zuten; Astola (Abadiño), Tabira (Durango) eta Kosnoaga (Gernika) taldeetako umeek parte hartu zuten ekimenean. Bestalde, umeentzako jokoak ere burutu zituzten Astolako igerile-

kuan. Guztira, Abadiñoko eta inguruetako 120 ume inguruk parte hartu zuten jokoetan; Guztiei sariak banatu zizkieten, behin jaia amaituta. Parte-hartzaile guztiak 10 urtez azpikoak izan ziren.

Antolatzaileen berbetan, jaialdia "oso arrakastatsua" izan zen: ikusleen zein parte-hartzaileen erantzunagaz pozik agertu dira Astola taldekoak. ■ A.M.



Ikusleen erantzunagaz pozik agertu dira antolatzaileak.

Agenda

FUTBOLA

LEHENBIZIKO ERREGIONALA

Iurretako - Begoña

Zapatuan, 18:00etan, Larrako-zelain

ARETO FUTBOLA

LEHENENGO MAILA

(Igoera)

Astraburuko B - Abadiñoko Lagun

Zapatuan, 17:00etan,

Erandion

BIGARREN MAILA (Igoera)

Sapuberri - Goiztiri

Zapatuan, 17:30ean,

Tabiran

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Santxo / Bendolro

- Mendizabal - Untoria / Azpiri - Aretxabaleta

Gaur, 20:00etan,

Mallabiko pilotalekuan

II.PETER MEMORIALA

- Arabiourrutia - Zenarruzabeitia / Gutierrez - Kamera

- Agirrezabal / Aldape - Uriora / Ajuria

Gaur, 19:30ean,

Ezkurdi pilotalekuan

ERRUGBIA

EUSKADIKO KOPA FINALA

(KADETEAK)

DRT/Arrasate, Gernika, Getxo, Hernani

Zapatuan, 11:00etan,

Mojategin, Arrasate

NACEX

San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)

Tel.: 94 620 01 62

Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es

www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

laguntzaileak

ABADIÑOKO
UDALAATXONDOKO
UDALADURANGOKO
UDALAELORRIOKO
UDALAMALLABIKO
UDALA

LAUHANKA >



Erosketak egiterakoan, ez da komeni kotxe barruan uztea

Oso garrantzitsua da eguneko ordu beroenak etxean igarotzea

Bero kolpe bategatik maskota txarto ipintzen bada, bainatzea da onena

Udako beroaldietan freskotasuna eta ura beharko ditu maskotak

Maskota gugaz hara eta hona eroateko ohitura daukagu, baita udan ere; baina egun eguzkitsu zein beroa dagoenean, komenigarria izango zaigu hainbat aholkuren berri jakitea, gure animalia-aren onerako.

Uda badator, eta beragaz batera beroaldiak ere etorriko dira. Dagoeneko, hain justu, izan dugu antzeko egunik ere. Eguzkia indartsu ateratzen den egunetarako kalera-ko planak egiten ditugu sarritan, eta gure etxeko maskota ere gugaz eroaten dugu egun-pasa egitera. Baina ez dakigu tenperatura beroek zelan eragin diezaioketen animalari, eta horrek arriskua ekar dezake.

Txakurrek, esaterako, gizakiok baino babes handiagoa behar izaten dute horrelako egoeretan. Egin beharreko lehenengo gauza maskotari ilea moztea izango da, beroa gorputzean ez metatzeko; hori bai, kontuz larregi

ez kentzeagaz. Izan ere, ileak eguzkiarengandik babesteko balio die.

Kontuan izateko beste neurri bat kotxean ez uztea da. Erosketak egiterakoan, adibidez, ez da komeni kotxe barruan uztea. Denok dakigu bero handiko egunetan zelan berotzen diren ibilgailuok. Horrez gainera, ahal dela gerizpean edukiko dugu jolas-erako sasoian.

Eguerdian ateratzea ekidin

Oso garrantzitsua da eguneko ordu beroenak etxean igarotzea. Eguerdiko 12:00etatik arratsaldeko 16:00etara bitartean ez dugu maskota kalera aterako; ariketa edo esfortzurik egiteko ez behin-

tzat. Bestalde, beroari aurre egiteko irizpide bat edateko ur asko ematea da. Deshidratazioa saihestuko dugu horrela eta, bide batez, gorputzeko tenperatura kontrolatzen lagunduko du. Edateaz gainera, kanpotik uragaz freskatzea ere ondo etorriko zaio animalari.

Bero kolpearen sintomak

Bero kolpe bategatik maskota txarto ipintzen bada, hainbat sintoma azaleratu ditzake: nekea, astiro ibiltzea, arnasa hartzeko arazoak edo begipeko poltsatxoak sortzea, esaterako. Hau gertatzean bainatzea da onena, eta okerre-egiten badu, albaitariaren-gana eroatea.





IURRETA
1911 - 2011



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



IURRETA
1. Ekainak 9



Lekeitio
2. Ekainak 10



elorrio
3. A Ekainak 11



Deba
3. B Ekainak 11



Urduña
4. Ekainak 12

Iurreta - XXIV. Emakumeen Bira



Foto: Jon Iglesias



anboto
komunikabideak

GARA 
Egunkari ofiziala

2011

INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, eskegitokia eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. Zatoz ikustera.
- Apartamentu berriak eraikitzen.700€ hilero. EZ GALDU AUKERA HAU.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
- ZEHARKALEA: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela – jangela eta komuna.
- ANDRA MARI: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
- BARRENKALE: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.
- Taberna salgai. 100 m2. Instalazio guztiekin. Prezioa negoziagarria da.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Zoragarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

TXALETAK-BASERRIAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserría, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baserría salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzolako kobetatik gertu.
- Baserría salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

MALLABIA

- TRABAKUA: Baserría. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- Guztiz berriztuta dagoen baserría. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- MENDIOLA. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatze-ko.Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua – txokoa. Lorategia barbakoarekin. Leku onean kokatua.

GARAI

- Adosatua salgai. Estreinatzeko. Leku ezin hobean kokatuta.

LUR SAILAK SALGAI

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

LEMOA

- 2.800 m2 eta 2.700 m2-ko lursailak eraikitzeko baimenarekin. Prezio interesgarria.

OROBIOS

- 4.200 m2-ko lursaila. Guztiz laua.



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO - Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ATXONDO: Adosatua lursailarekin salgai.
 - ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
 - DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
 - BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
 - OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- ### ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxo.
 - ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
 - ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
 - ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
 - ARAMOTZ: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
 - ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
 - BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
 - BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
 - ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
 - GALLANDA: Estreinatzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
 - GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garaje aeta trastelekua.
 - EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
 - F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
 - F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
 - GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
 - INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
 - IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentza-ko garajea eta trastelekua.
 - JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
 - KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
 - KALEBARRIA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta).
 - KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).
 - KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
 - KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
 - LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
 - MARTXOAREN 8a: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
 - MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
 - PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
 - SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
 - SAN FAUSTO: Halla, sukalde.jangela, 2 logela eta komuna.
 - SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
 - TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
 - TXIBITENA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia. Ikuspegiekin.
 - UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
 - ABADIÑO-ITURRITXO: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Trastelekua. Garajea.



Inmobiliaria del Duranguesado
ISD

Askatasun etorbidea, 10 - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- MARTXOAREN 8KO: Estreinatzeko dauden azkeneko 2 etxebizitza, beharapen handiagaz obrak likidatzeko. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- EZKURDI: Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 336.225 -tik aurrera garajea, ganbara eta BEZa barne!
- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta ganbarekin 185.000€ + BEZ
 - 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€+ BEZ
 - 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€+ BEZ
- ASKATASUN ETORBIDEA: 115 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 81 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. Gas naturala.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeko. 2 logelako atikoa, egongela, sukalde jantzia, 2 komun. 20 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
- ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- EZKURDI: 85 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. PREZIO ONA.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
- TABIRA: Erdi berria. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea. Polita.
- MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- MIKELDI: 101 m2. 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Guztiz berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- FRANTZISKO IBARRA: 105 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea aukeran.
- SAN IGNAZIO: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- SASIKOA: 85 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Balkoia. Ikuspegi politak. Eguzkitsua.
- FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garaje itxia aukeran.
- MENDIZABAL: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- ALLUITZ-FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra. Garaje itxia.
- TXIBITENA: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- TXIBITENA: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ARAMOTZ: 3 logela. Guztiz berriztatua eta jantzia.
- JUAN DE ITZIAR: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- SAN FRANZISKO: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun. 2 balkoi. IKUSPEGI POLITAK.
- ZEHARKALEA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua.
- SAN FAUSTO: Guztiz berriztatua dauden etxebizitzak, bizitzen sartzeko moduan. 2 eta 3 logela. Prezio onak.
- BARANDIARAN: 90 m2-ko bulegoa salgai. Prezio interesgarria.
- MADALENA: Trastelekuak salgai. Gainazal ezberdinak.
- MADALENA: Garaje itxia salgai.
- DURANGALDEA: Baserría, adosatua, familia bakarrekook eta bifamiliarrak. Pabilioiak eta garajeak salgai eta alokagai. Hainbat zonalde.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ARTEKALE: 3 logela. 700€.
- SAN IGNAZIO: Lokala. 115 m2. Guztiz egokitua.
- MATIENA: Pabilioia. 163 m2. 950€

ETXEBIZITZAK SALGAI

- PLATERUEN PLAZA: 105 m2. 218.000€.
- OIZ: 3 logela eta egongela. 2 terraza. Igogailua.
- DANTZARI: 3 logela. Jantzia. 180.000€.
- TXATXIENA (Jesuitas zonaldea): 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- TABIRA: 90 m2. 3 logela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Aparkaleku pribatua.
- ONITURRI: 80 m2. Ganbara eta garajea.
- HERRIKO GUDARIEN: Pisu altua. 110 m2. 3 logela, 2 komun, egongela terrazarekin eta eskegitokia. Ganbara eta garajea.
- MIKELDI: 105 m2. 4 logela eta egongela handia. 2 terraza. Ganbara. Igogailua eta berogailua. 210.355€.
- ERDIALDEAN: 3 logela eta egongela. Igogailua eta berogailua. Polita. 185.750€.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, egongela tximiniarekin eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. 294.500€.
- ANTZO EZTEGIZ: 120 m2. 4 logela eta 3 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea. ARGITSUA.
- LANDAKO: Apartamentua. Handia. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Azkeneko etxebizitza. 3 logela eta 2 terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 2 kotxerentzako garajea aukeran. 216.400€.
- KOMENTUKALEA: 3 logela. Igogailua. Polita.
- ERROTARITXUENA: ESTREINATZEKO. ATIKOA. 40 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
- ZEHARKALEA: 70 m2. 3 logela. 198.300€.
- MIKELDI: 105 m2. 3 logela, egongela eta sukalde-jangela. 2 terraza. Igogailua. BERRIZTATUA.
- MADALENOSTE: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdi berria.
- SASIKOA: 70 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
- DURANGO: 4 logela. 130.000€.
- TABIRA: 4 logela. 2 terraza. Igogailua. Berogailua. Ikuspegi politak. 222.300€.
- EZKURDI: 138 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Berogailua. Igogailua. Ikuspegiak. 342.600€.
- SAN IGNAZIO: 90 m2. Terraza. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. BERRIZTATUA.
- ANTZO EZTEGIZ: 2 logela. Igogailua. 179.000€.
- ZUMARPARKEA (TABIRA): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua.
- EZKURDI: 70 m2. 1.go solairua. 180.000€.
- ALLUITZ: 2 logela eta sukalde-egongela. Eguzkit-sua. Ganbara. Garaje itxia.
- PLATERUEN PLAZA: 105 m2. 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du.

IURRETA

- BIXENTE KAPANAGA: Etxebizitza altua. 90 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua. Ganbara. Eguzkitsua.
- BIDEBARRIETA: 3 logela. Terraza. Garajea.
- BIXENTE KAPANAGA: 2 logela, egongela, sukalde-jangela. Igogailua. Berriztatua. 210.000€.
- MASPE: 3 logela eta egongela. Igogailua. AUKERA.

BESTE ZONALDE BATZUK

